

4/2015 FORU ARAUA, martxoaren 25ekoa, Oinordetza eta Dohaintzen Gaineko Zergari buruzkoa (BAO Apirilaren 1ekoa)

Jakinarazten dut Bizkaiko Batzar Nagusiek 2015eko martxoaren 25eko Osoko Bilkuran onartu dutela 4/2015 Foru Araua, martxoaren 25ekoa, oinordetza eta dohaintzen gaineko zergari buruzkoa, eta arau hori aldarrikatu eta argitaratzeko agindua ematen dut, aplikatu ahal zaien herritar, norbanako eta agintari guztiek bete dezaten eta betearaz dezaten.

OINORDETZEN ETA DOHAINTZEN GAINEKO ZERGARI BURUZKO MARTXOAREN 25EKO 4/2015 FORU ARAUA.

ATARIKOA

Foru-arau honek Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zerga arautzen du, eta, hala, burutu egiten da zuzeneko zergapetzearen erreforma integralerako Bizkaiko Lurralde Historikoan egin den lehenengo prozesua, zergapetze horri dagokionez indarrean dagoen Ekonomia Itunak Euskal Lurralde Historikoei ematen dizkien eskumen osoak erabiliz.

Prozesu horretako lehenengo mugarrria Ondarearen gaineko Zergari buruzko 2013ko otsailaren 27ko 2/2013 Foru Araua onestea izan zen, zeinaren bidez -2013ko ekitaldiko ondorioekin-berriro sartu zen Ondarearen gaineko Zerga hori Bizkaiko tributu-sisteman. Ondoren, urte bereko abenduan, Sozietateen gaineko Zergari buruzko 11/2013 Foru Araua, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko 12/2013 Foru Araua eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko 13/2013 Foru Araua onetsi ziren.

Erreforma honen aurrekari zuzena Bizkaiko Lurralde Historikoko erakunde eskudunek 2012ko eta 2013ko ekitaldietara mugatuta hartu zituzten zenbait zerga-neurri dira. Diru-sarrera publikoak sendotzeko, susperraldi ekonomikoa bultzatzeko zein aurrekontu-egonkortasuna bermatzeko neurriak ziren, eta haien bidez, orobat, ekitatearen printzipioan aurrera egin nahi zen, zerga-kargak hobeto banatu eta aberastasuna hobeto banatu. Aurreko hori guztia, gainera, munduan ordura arte Inoiz ezagutu gabeko krisi ekonomiko baten barruan egin behar izan zen.

Oro har, neurri iragankor horiek modu iragankorrean sartu dira arestian aipatutako zergapetze mota bakoitzean, aintzat hartu baita zein emaitza positiboak lortu diren haiek aplikatzerakoan, hala zerga-bilketari dagokionez, nola Bizkaian iruzurraren aurkako borrokan efizientzia eta eraginkortasun handiagoa lortzeari dagokionez.

Bereziki, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren kasuan, foru-arau hau indarrean jarri arte, arau bik arautzen zuten zerga hau: batetik, 1989ko otsailaren 15eko 2/1989 Foru Arauaren Testu Bateginak (1993ko otsailaren 22ko 3/1993 Foru Dekretu Arauemaileak onetsia), eta, bestetik, 2012ko otsailaren 29ko 1/2012 Foru Arauak (2012rako eta 2013rako zenbait xedapen iragankor eta zergen arloko beste neurri batzuk onartzen dituena). Bada, bi arau horiek modu iragankorrean ezabatu zuten dohaintzetan ondorengo zuzenentzat eta ezkontideentzat zegoen salbuespena, eta, ondorioz, ordutik aurrera %1,5eko tasa bakarraren arabera tributatu behar zuten. Gainera, beste neurri tekniko batzuk ere sartu zituzten, zergak ez zezan koherentziarik galdu. 2013ko abenduaren 5eko 10/2013 Foru Arauak, bere aldetik, sine die luzatu zuen araubide iragankor hori eta, aldi berean, tributaziopean jarri zituen bai ezkontideek edo izatezko bikoteetako kideek lerro zuzenean egindako oinordetzak, bai pertsona horiek -kausatzailea hiltzearen ondorioz- bizitzaren gaineko aseguruak direla-eta hartutako diru-kopuruak. Bada, hori guztia gaitasun ekonomikoaren eta ekitatearen printzipioak bete eta finkatzearen egin zen.

Ondorioz, «mortis causa» eskualdaketa horien tributazio modu berriak berez ekarri zuen halakoek 1/2012 Foru Araua indarrean jarri arte zeukaten salbuespena galtzea eta %1,5eko tasa proportzionala ordaindu behar izatea. Hala ere, 400.000 euroko gutxieneko kopurua

salbuetsita geratzen da jaraunseko. Neurri hori osatzeko, aldi baterako araubide bat sartu zen, Bizkaiko foru-zuzenbide zibilak arautzen dituen jarauntsi-eskuraketetarako.

1989ko otsailaren 15eko 2/1989 Foru Araua indarrean egon den 25 urteotan, azken urteotako aldaketez gainera beste hainbat ere egin zaizkio zerga hau arautzen duen foru-arau horri, hainbat jatorritakoak. Bada, neurri on artean daude hala zerga honen araudiaren eta legeria zibilaren -komun zein foralaren- artean egon beharreko koordinazioaren ondorio direnak, nola Bizkaiko tributu-sistemaren erreferentzia-esparru berria onartu izanak eskatzen zituenak. Sistema hori, hain zuzen, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko 2005eko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauaren bidez onetsi zen.

Foru-arau honen funtsezko helburua zerga honen araudiaren koherentzia bermatzea da, koherentzia hori batzuetan gutxitu egin baita araudia indarrean egon den urte luzeetan hango artikuluetan egindako aldaketa partzial etengabeen ondorioz. Halaber, berrikuntzak egin nahi dira zergaren araudiko teknikan, haren aplikazioa erraztu eta zergadunen segurtasun juridikoa handitzearen, eta soilik prozedurari lotutakoak diren gaiak utzi dira, hortaz, erregelamendu bidez garatzeko.

Foru-arau honek egingo duen beste ekarpen nabarmenetako bat zergaren araudia aplikatzeari dagokionez administrazioaren jardunean erabat errotuta dauden irizpide batzuk biltzea izango da, esaterako, Foru Zuzenbide Zibilak berezko duen oinordetza-itunaren instituzioari buruzkoak.

Azkenik, zergaren kudeaketari dagokionez, nabarmendu behar da aitortpena edo autolikidazioa telematikoki aurkezteko aukera jaso dela, eta, hala, teknologia berriak erabiliz, Bizkaiko Zerga Administrazioaren beste helburuetako bat ere lortu ahal izango da, alegia, zergadunek errazago bete ahal izatea beren zerga-betebeharrak.

Bada, helburu horiek guztiak lortzeko onesten da foru-arau hau, zeinak hamabi titulu dituen, 78. artikulua, xedapen gehigarri bi, xedapen iragankor bat, xedapen indargabetzaile bat eta azken xedapen bi.

Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundearen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko 1987ko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauko 55. artikuluko 1. eta 3. zenbakietan xedatutakoa betetzeko, memoria ekonomikoari buruzko txostena eta genero-eraginaren ebaluazioari buruzko txostena doaz foru arau honekin batera.

I. TITULUA. IZAERA ETA APLIKAZIO-EREMUA

1. artikulua. Izaera eta xedea.

Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zerga zerga zuzena eta subjektibo bat da, pertsona fisikoek dohainik lortzen dituzten ondare-gehikuntzak kargatzen dituena, hain zuzen foru-arau honetan ezarritako moduan.

Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergak eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergak ezingo dute inoiz ere batera zergapetu ondare-gehikuntza bera.

2. artikulua. Zergaren aplikazio-eremua eta ordainarazpena.

1. Foru-arau honetan ezarritakoa bete behar pertsonalaren zioz aplikatuko zaie ohiko egoitza Espainian duten zergadunei, honako kasu hauetan:
 - a) «Mortis causa» eskuraketetan, baldin eta sortzapenaren egunean kausatzailearen ohiko bizilekua Bizkaian badago.
 - b) Bizitzaren gaineko aseguruaren onuradunek aseguruaren heriotzaren ondoren kopuruak hartzen dituztenean, baldin eta sortzapenaren egunean kausatzailearen ohiko bizilekua Bizkaian badago.

- c) Ondasun higiezinaren eta haien gaineko eskubideen dohaintzetan, higiezin horiek Bizkaian kokatuta baldin badaude. Ondasun higiezinak atzerrian badaude, sortzapenaren datan dohaintza-hartzaileak ohiko egoitza Bizkaian duenean.

Ondorio horietarako, ondasun higiezinaren dohaintzat hartuko dira 2012ko abenduaren 4ko 6/2012 Foru Dekretu Arauemailean aipatzen diren baloreekin dohainik egindako eskualdaketak (foru-dekretu arauemaile horren bidez, baloreen eskualdaketek Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergan izango duten zerga-tratamendua ezartzen da).

- d) Gainerako ondasun eta eskubideen dohaintzetan, dohaintza-hartzaileak ohiko bizilekua Bizkaian baldin badauka sortzapenaren egunean.

Goiko a) eta b) letretan ezarritako kasuetan, kausatzaileak egoitza atzerrian badu, foru arau honetan xedatutakoa aplikatzekoa izango da baldin eta zergadunak Bizkaian badu ohiko egoitza.

Aurreko a), b) eta d) letretan ezarritakoa gorabehera, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren lurralde erkideko araudia aplikatuko da, baldin eta kausatzaileak, aseguruak edo dohaintza-hartzaileak egun gehiago pasa baditu lurralde erkidean aurreko bost urteetako denboraldian, zergaren sortzapenaren egunetik kontatuta. Euskal Herriaren Autonomia Estatutuko 7.2 artikulua araberako euskal herritar izaera politikoa izaten jarraitu dutenei ez zaie arau hori aplikatuko.

- 2. Foru-arau honetan ezarritakoa bete behar errealaren zioz aplikatuko zaie ohiko egoitza Espainian duten zergadunei, honako kasu hauetan:

- a) Ondasun eta eskubideen eskuraketetan, haien izaera edozein dela ere, baldin eta ondasun-eskubideon balio handiena Euskadin badago eta baldin eta ondasun eta eskubide horietatik Bizkaian kokatuta daudenen, bertan erabil daitezkeen edo bete beharrekoak diren balio handiagoa bada ondasun-eskubideok beste bi lurralde historiko bakoitzean duten balioa baino.
- b) Bizitzaren gaineko aseguru-kontratuetatik datozen kopuruak jasotzen direnean, baldin eta kontratua egoitza Bizkaiko Lurralde Historikoan duen entitate aseguratzaile batekin edo Bizkaian jarduten duten atzerriko entitate batekin egin bada.

Aurreko bi letretan ezarritakoaren ondorioetarako, honako hauek joko dira euskal lurraldean kokatutak:

- 1. Han finkatuta dauden ondasun higiezinak.
 - 2. Euskal lurraldean kokatuta dauden etxebizitzetarako, finkei, ustategiei edo industria-establezimenduei etengabe afektatutako ondasun higigarriak eta, orokorrean, lurralde horretan egon ohi direnak, nahiz eta zergaren sortzapen-egunean handik kanpo egon, egoeraren arabera zirkunstantziengatik edo zirkunstantzia iragankorregatik.
- 3. Aurreko zenbakietan ezarritako kasuetan Bizkaiko Foru Aldundiak ordainaraziko du Zerga.
 - 4. Baldin eta dokumentu berean dohaintza-emaile batek ondasun edo eskubide batzuk dohaintzen badizkio dohaintza-hartzaile bati eta, aurreko zenbakietan ezarritakoa aplikatuta, etekina Bizkaiko Lurralde Historikoan eta beste zerga-administrazio baten menpeko lurralde batean gertatutak jo behar bada, honela kalkulatu da Bizkaiko Foru Aldundiari dagokion kuota: eskualdatzen diren ondasun-eskubide guztien balioari araudi honen arabera egokituko litzaiokeen batez besteko tasa aplikatu behar zaio haien etekina dohaintza-hartzaileari esleituta duten dohaintzaren ondasun-eskubideen balioari.
 - 5. Dohaintzak metatzen diren kasuetan, honela kalkulatu da Bizkaiko Lurralde Historikoari dagokion kuota: metatutako ondasun-eskubide guztien balioari foru-arau honetan

ezarritakoaren arabera egokituko litzaiokeen batez besteko tasa aplikatu behar zaio gaur egun eskualdatuta dauden ondasun-eskubideen balioari.

Horretarako, hauek hartuko dira metatutako ondasun eta eskubidetzat: aurreko dohaintzetatik datozenak eta egungo eskualdaketa xede direnak.

6. Artikulu honetan ezartzen denak ez du eragozten Espainiako estatuak sinatu eta berresten dituen edo atxikitzen zaien nazioarteko tratatu eta hitzarmenetan xedatutakoa.
7. Espainiako Estatuak atzerrian dituen ordezkari eta funtzionarioak zein atzerriko organismo, erakunde edo estatuak Espainian dituztenak zerga honen menpekoak dira betebeharrak pertsonalaren zioz, eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko arauetan subjektu pasibo horientzat ezarritako inguruabar eta baldintzei lotuko zaizkie.

3. artikulua. Ohiko egoitza.

1. Artikulu honetan ezarritakoaren ondorioetarako, pertsona fisikoek beren ohiko egoitza Bizkaian dutela esan daiteke honako erregela hauek elkarren segidan aplikatu ahal badira:

- 1.a. Zerga sortzen den egunaren bezperan amaitzen den urteko egun gehienak Euskal Herrian emanik, datatik datara zenbatuta, Bizkaiko Lurralde Historikoan egun gehiagoan egon bada beste lurralde historiko bakoitzean baino.

Bizkaiko egonaldia zenbatekoa izan den zehazteko, epe horretan izandakoaldi baterako absentziak zenbatuko dira.

Kontrakoaren frogarik ez, pertsona fisiko bat Bizkaiko Lurralde Historikoan dagoela pentsatuko da bere ohiko etxebizitza bertan baldin badu.

- 2.a. Interesen gune nagusia Bizkaian badu. Zergadun batek bere interesen gune nagusia Bizkaian duela ulertuko da baldin eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zerga-oinarriaren zatirik handiena Euskal Autonomia Erkidegoan lortzen badu eta, gainera, Bizkaian lortutako zerga-oinarriaren zatia handiagoa bada beste lurralde historikoetako bakoitzean lortutakoa baino. Dena dela, ondorio bietarako, irizpide horretatik kanpo geratuko dira kapital higigarriaren errentak nahiz ondare-irabaziak eta egotzitako zerga-oinarriak.

- 3.a. Bizkaian baldin badu Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren ondorioetarako aitortutako azken egoitza.

Lehenengo erregela aplikatuta ere ezinezko gertatzen bada zergadunaren ohiko egoitza zein lurraldean -erkidean edo foralean- dagoen zehaztea, bigarren erregela aplikatuko da.

Lehen eta bigarren erregeletan xedatutakoa aplikatu ondoren gauza bera gertatzen bada, berriz, hirugarren erregela aplikatuko da.

2. Espainiako lurraldean egoiliar diren pertsona fisikoek urte naturalaren barruan ez badituzte 183 egun baino gehiago ematen bertan, pertsona horiek Euskal Autonomia Erkidegoko egoiliartzat hartuko dira, baldin eta beren ekonomia-jardueren edo interes ekonomikoen gune nagusia edo basea autonomia-erkidego horretan kokatzen bada.

Aurreko lerroaldean jasotakoaren arabera pertsona fisikoen ohiko egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan badago, pertsona horiek Bizkaiko Lurralde Historikoan bizi direla ulertuko da, baldin eta beren ekonomia-jardueren edo interes ekonomikoen gune nagusia edo basea lurralde horretan kokatzen bada.

3. Pertsona fisiko bat Espainiako lurraldeko egoiliarra dela uste bada, haren ezkontidearen -legez berezita ez badago- eta haren mendeko seme-alaba adingabeen ohiko egoitza Bizkaian dagoelako, pertsona fisiko horren ohiko egoitza Bizkaian dagoela ulertuko da. Presuntzio horren aurka kontrako frogak aurkez daitezke.

4. Egoitza aldatzearen helburu nagusia zerga gutxiago ordaintzea baldin bada, halako aldaketek ez dute ondoriozik edukiko.
5. Egoitza ofizios aldatzen denean, zerga-administrazioen arteko akordio baten edo Arbitraje Batzordearen ebazpen baten ondorioz, kasu horretan, kontrakoaren frogarik ezean, hala zehaztutako zerga-egoitza ebazpena hartzen den egunaren osteko hiru urteetan mantenduko dela ulertuko da.
6. Zerga hau betebeharraren zioz ordaindu behar duten subjektu pasiboek, hots, foru-arau honetako 2. artikuluko 2. zenbakian aipatu direnek, egoitza Bizkaiko Lurralde Historikoan duen pertsona bat izendatu behar dute beren ordezkaria izan dadin Zerga Administrazioaren aurrean, zerga honen inguruko betebeharrarako.

Subjektu pasiboek izendapen horren berri jakinarazi behar diote Zerga Administrazioari, eta ordezkariaren berriazko onarpen-adierazpena ere bidali behar dute harekin batera.

II. TITULUA. ZERGA-EGITATEA

4. artikulua. Zerga-egitatea.

Honako hau da zerga-egitatea:

- a) Ondasunak eta eskubideak jarauntsiz, legatuz edo beste edozein oinordetza-tituluz eskuratzea.
- b) Ondasunak eta eskubideak dohaintzaz edo beste edozein doako eta «inter vivos» negozio juridikoz eskuratzea.
- c) Bizitzaren gaineko aseguru-kontratuen onuradunek kopuruak jasotzea, kontratua egin duena onuraduna ez denean, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 18. artikuluko a) letran berriaz araututako kasuetan izan ezik.

Istripu-aseguru baten onuradunak kopuruak jasotzea letra honetako zerga-egitatean sartuko da, baldin eta kopuruok jasotzearen arrazoia pertsona aseguratuaren heriotza bada.

5. artikulua. Oinordetza-tituluak.

Jarauntsiaz eta legatuaz gain, zerga honen ondorioetarako honako hauek dira, besteak beste, oinordetza-tituluak:

- a) «Mortis causa» dohaintza.
- b) Oinordetza-kontratuak edo -itunak, haien eragina noiznahi gertatzen dela ere.

Ondorio horietarako, eraginkortasuna unean bertan duten oinordetza-itun bat, ondasun berezi baten titulartasuna esleitzea dakarrena, kasu batean bakarrik hartuko da oinordetza-titulutzat: esleipen hori ondasun-xedapen zabalago baten parte bada, non, gutxienez, beste elementu bat egon behar den oinordeko-izendapenari lotuta, tresna itundu batean, beste ondare-elementu batzuei dagokienez. Beste kasu guztietan dohaineko eta «inter vivos» negozio juridikotzat hartuko da.

Nolanahi ere, eraginkortasuna unean bertan duten oinordetza-itun bati ez zaio aurreko lerroaldean ezartzen eduki osagarria eskatutako itun hori oinordetza-titulutzat hartzeko, baldin eta titulartasuna esleitzen deneko ondasun berezia izendatzailearen ondareko elementu bakarra bada.

- c) Uko egiteko oinordetza-itunak, Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legearen 100. artikuluko 2. zenbakiko lehen tartekian araututakoak.

Hala ere, oinordetza-eskubideen zati bati uko egiteko itun baten ondorioz uko egileak ondasun eta eskubideak eskuratzea kasu batean bakarrik hartuko da oinordetza-titulutzat: ondasun eta eskubideen esleipen hori xedapen zabalago baten parte bada, non, gutxienez, beste elementu bat egon behar den jaraunsle- izendapenari lotuta, tresna itundu batean, beste ondare-elementu batzuei dagokienez. Beste kasu guztietan doako eta inter vivos negozio juridikotzat hartuko da.

Oinordetza-eskubide guztiei uko egiteko oinordetza-itunetan, izendatzailea hil ondoren uko egileak ondasun eta eskubideak eskuratzea doako eta inter vivos negozio juridikotzat hartuko da, hurrengo 6. artikuluan ezarritakoarekin bat, ezertan eragotzi gabe oinordekoen legokiekeen tributazioa.

- d) Komisarioak testamentu-ahalordea erabiltzetik datozen egintzak, hartzen duten forma zeinahi dela ere.
- e) Ezkontza-itunetan oinordekoa izendatzea.
- f) Enpresa eta entitateek, oro har, hildako kide edo enplegatuen senideei ematen dizkieten kopuruak jasotzeko eskubidea ematen duten oinordetza-tituluak, kopuruon modalitatea edo izena zeinahi dela ere, baldin eta berariaz ezarrita ez badago hartzen diren kopuru horiek zergapetzekoak direla aurreko 4. artikuluko c) letran edo Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan ezarritakoaren arabera.

6. artikulua. Doako eta «inter vivos» negozio juridikoak.

Dohaintzaz gainera, honako hauek hartuko dira, besteak beste, doako eta «inter vivos» negozio juridikotzat, zerga honen ondorioetarako:

- a) Zorra osorik edo partzialki barkatzea, eskuzabaltasunez.
- b) Eskubideei uko egitea, pertsona jakin baten alde.
- c) Beste baten zorra kitatzeko betebeharra kontraprestaziorik gabe bereganatzea, foru-arau honetako 35. artikuluan ezarritako kasuan izan ezik.
- d) Epaiketa edo arbitraje batean bestearen alde atzera egin edo amore ematea, eskuzabaltasunez, eta, orobat, transakzio bat egitea, haren ondorioa asmo berberaz egindako uko egite bat, atzera egite bat edo amore emate bat denean.
- e) Bizitzaren gaineko aseguru-kontratua, aseguratuak bizirik iraunez gero, eta banakako aseguru-kontratua, kontratugilea ez den aseguratua hilez gero, baina, kasu batean eta bestean, onuraduna ez bada kontratugilea bera.
- f) Uko egileak ondasun eta eskubideak eskuratzea hirugarren baten jarauntsiko oinordetza-eskubideak xedatzearen ondorioz, Euskal Zuzenbide Zibilar buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legearen 100. artikuluko 2. zenbakiko bigarren tartekian ezarritakoarekin bat.

7. artikulua. Zerga honen menpe ez dauden kasuak.

Honako hauek ez daude zerga honen menpe:

- 1. Onuradunek honako hauetatik jasotzen dituzten prestazioak, baldin eta hartzaileari dagokion Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren menpe badaude:
 - a) Pentsio Plan eta Funtsei buruzko Legearen testu bateginean araututako pentsio-planak.
 - b) Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foruko 56. artikuluko 5. zenbakian ezarritako karga-tasa aplikatu behar zaien borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeak.

- c) Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Arauak aipatzen dituen aurreikuspen-plan aseguratua eta enpresen gizarte-aurreikuspeneko planak.
 - d) Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 2003ko ekainaren 3an emandako 2003/41/EEE Zuzentarauan (enpleguko pentsio-funtsen jarduerari eta ikuskapenari buruzkoan) araututako pentsio-planak.
2. Mendetasun larriaren edo mendetasun handiaren arriskua soilik estaltzen duten aseguru pribatuei ordaindutako primak, zergadunarekin zuzeneko edo zeharkako lerroko ahaidetasun-harremana (laugarren gradurainokoa, hori barne) duten pertsonen sinatutakoak, edo haren ezkontideak edo izatezko bikotekideak sinatutakoak, edo zergaduna tutoretza edo harrera erregimenean bere kargura duten pertsonak edo hari dagokionez ordezkapen-ahalmenak dituen kuradoretza dutenak hartutakoak, eta Pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergaren Foru Arauaren 70. artikuluan 1. apartatuaren 7. zenbakian zerrendatutako betekizunak betetzen dituztenak.
 3. Zergadunaren ezkontidea edo izatezko bikoteko kidea bazkide, partaide, mutualista edo titularra den gizarte-aurreikuspeneko sistemei egindako ekarpenak, baldin eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 70. artikuluko 3. zenbakiko baldintzak betetzen badituzte.
 4. Desgaitasuna duten pertsonen alde gizarte-aurreikuspeneko sistemei egindako ekarpenak, baldin eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 72. artikuluko baldintzak betetzen badituzte.
 5. Ondasunen foru-komunikazioa desagitean ezkontide alargunari edo izatezko bikoteko kideari egiten zaizkion adjudikazioak, baldin eta komunikaziopeko ondasunetatik dagokion erdia ordaintzeko egiten bazaizkio.

8. artikulua. Kalifikazio printzipioa.

Eskuraketaren arrazoi den kontratuaren edo egintzaren benetako izaera juridikoaren arabera eskatuko da Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zerga, alderdiek kontratu edo egintza horretarako aukeratutako era zein hari emandako izena edo zer dela ere, eta bazter utziko dira kontratu edo egintzaren baliozkotasunari eta eraginkortasunari eragin diezaioketen erazko eta berezko akatsak, baina, hala ere, itzulketarako eskubidea egongo da, hala badagokio.

9. artikulua. Baldintzak betetzea.

Baldin eta zergari lotutako ondare-gehikuntza ekarri duen egintzari edo kontratuari baldintza bat bete beharra ezarri bazaio, aplikatzekoa den legeria zibilean ezarritako preskripzioen arabera kalifikatuko da baldintza hori. Etengarri bezala kalifikatuz gero, zerga ez da likidatuko baldintza bete arte, eta dagokien erregistro publikoan ondasunoi dagokien erregistroan adieraziko da likidazioa geroztu dela.

Suntsiarazle bezala kalifikatuz gero, zerga exijitu egongo da; nolahi ere, itzulketarako baldintza betetzen bada, zerga itzultzeko eskubidea egongo da.

10. artikulua. Eskualdatutako ondasunak zerga ordaintzeko obligazioari lotzea.

1. Eskualdatutako ondasunak eta eskubideak, edozein dela ere haien edukitzailea, eskuraketa zergapetzen duen zerga ordaindu beharri loturik egongo dira -zerga likidatua izan zein ez izan-, kasu bitan izan ezik: batetik, edukitzailea erregistroko fede publikoak babesturiko hirugarren bat denean; bestetik, ondasun higigarri inskribaezinen kasuan, merkataritzako edo industriako establezimendua fede onez eta bidezko tituluz eskuratu dela frogatzen denean.
2. Onura fiskal baten behin betiko eraginkortasunak ezinbesteko baldintza badu zergadunak edozein betekizun gerora betetzea, Bulego Likidatzaileak agiri batean jaso beharko du inguruabar hori, aurkezleari itzuli baino lehen.

Jabetzako edo merkataritzako erregistratzaileek, orri-bazterreko oharren bidez, jasota utzi behar dute nola eskualdatutako ondasunak dagozkion likidazioak ordaintzeko betebeharrari lotuta geratzen diren, onura fiskalerako ezarritako betekizuna foru-arau honetan ezarritakoaren arabera betetzen ez den kasurako.

3. Bulego Likidatzailearen oharrak, aurreko zenbakian aipatzen direnak, agertzen ez badira, jabetzako edo merkataritzako erregistratzaileek ofizioz burutuko dute halako kasuetan ondasun-eskubideak ordaintzeko obligazioari lotzeko egin beharreko albo-oharra, kasuan kasuko autolikidazioa edo likidazioa (jaso duen bulegoak zigilatua) ikusita. Bertan agerraraziko dute edo zerga ordaindu dela edo aurkeztu egin dela zergaren menpean ez egoteko edo zerga honetatik salbuesteko alegazioa. Hori guztia, hain zuzen, erregelamenduz ezarritako prozedurarekin bat etorririk egingo dute.
4. Hala ere, Zerga Administrazioak ordaintzeko loturari buruzko oharra indargabetzeko baimena eman ahal izango du, aurretiaz egiaztatzen baldin badu salbuespena egitea zegokiola, ez zegoela zergapetuta edo zerga ordainduta dagoela.

11. artikulua. Presuntzioak.

1. Dohaineko eskualdaketa bat dagoela uste izango da, baldin eta erregistro fiskaletan jasota dauden datuetatik edo Administrazioak dituenetatik ondorioztatzen bada, batetik, txikitu egin dela pertsona baten ondarea, eta, bestetik, handitu egin dela, aldi berean edo ondoren -baina betiere foru-arau honetako 18. artikuluan ezartzen den preskripzio-epearen barruan-, ezkontidearen, izatezko bikoteko kidearen, arbasoen, ondorengoen, adopzio-hartzaileen eta adopzioan hartutakoen ondarea.
2. Zergari dagokionez, ezkontideen, izatezko bikoteko kideen, arbasoen eta ondorengoen edo adopzio-hartzaileen eta adopzioan hartutakoen arteko dohaintzak ez egindakotzat joko dira, baldin eta ezin bada egiaztatu aldi berean eta neurri berean gertatu direla dohaintza-hartzailearen ondarearen gehikuntza, batetik, eta dohaintza-emailearen ondarearen txikitzea, bestetik.
3. Arbasoek adingabeko ondorengoen izenean egindako kostu bidezko eskuratzeetan, presuntzioa izango da azken horien aldeko dohaineko eskualdaketa dagoela, eskualdatutako ondasun-eskubideen balioaren bestekoa, salbu eta frogatzen bada adingabekoak aurretik bazuela eskualdaketa hori egiteko beste ondasun edo baliabiderik eta frogatzen bada horretarako erabili dituela.
4. Egin beharreko likidazioak bidali aurretik, aurreko zenbakietan aipatzen diren presuntzioen berri emango zaie interesdunei, beren eskubidea defendatzeko komenigarritzat jotzen dituzten alegazioak egin eta frogak aurkeztu ahal ditzaten.

12. artikulua. Salbuespenak.

Honako hauek geratuko dira salbuetsita:

1. Baserriaren eta hari lotutako ondasunen jabari osoaren edo biziarteko gozamenaren dohaineko eskualdaketak, baldin eta tronkaleko ahaideen alde egiten badira, finka hori nekazaritza, basozaintza edo abeltzaintzako ustiapenerako erabiltzen bada eta eskualdatzaileak berak ustiatzen badu. Salbuespena egiteko, eskuratzaileak berak ustiatu behar ditu baserria eta hari lotutako ondasunak, sei urtez gutxienez, eta alta emanda egon behar du Gizarte Segurantzako Nekazaritzako Araubide Berezian eta nekazari aktibo egoeran egon behar du.
2. Bizitzaren gaineko aseguru-kontratuen zioz jasotzen diren kopuruak, baldin eta kontratuok izaera zibila edo merkataritzakoa duen eragiketa nagusi baten estaldura gisa erabiltzeko hitzartzen badira. Dena dela, zor den kopurua bera izango da salbuespen horren muga, eta handik gorakoa dela-eta tributatu egin beharko da.

3. Lursailekin «inter vivos» zein «mortis causa» egiten diren dohaineko eskuraketak, baldin eta eskualdaketa horien helburua bada muga bakarraren pean osatzea lehentasuneko ustiategi bat eraikitzeke beharrezko azalera; halako ustiategiak Nekazaritzako Ustiategiak Berriztatzeari buruzko 1995eko uztailearen 4ko 19/1995 Legeko 4-6. artikuluetan definitzen dira. Edozelan ere, halako eskuraketak salbuesita egoteko, eskuraketa-agiri publiko batean jaso beharko da, beti, ondoriozko finka ezingo dela bost urteko epean banatu, ezinbesteko kasuetan izan ezik.
4. Nekazaritzako ustiategi baten, haren zati baten edo landa-lur baten jabari osoa edo biziarteko gozamina nekazari gazte bati edo nekazaritzako soldatapeko bati «inter vivos» edo «mortis causa» egindako dohaineko eskualdaketak, baldin eta pertsona horrek betetzen baditu lehentasuneko ustiategi batean lehenengoz ezartzeko 1995eko uztailearen 4ko 19/1995 Legeak -Nekazaritzako Ustiategiak Berriztatzeari buruzkoak- araututako ezaugarriak nahiz baldintzak. Halaber, beharrezkoa izango da eskuraketa-eskrittura publikoan zein Jabetza Erregistroan honako hau jasotzea: eskuratutako finkak hurrengo bost urteetan besterenganatu, alokatu edo laga ahal izateko, aurretik frogatu beharko da salbuespen hau dela-eta ordaindu gabe geratu den zerga edo zerga zatia nahiz haren berandutze-interesak ordaindu direla, ezinbesteko kasuetan izan ezik.
5. Desgaituaren ondare babestuari egindako ekarpenei dagozkien ondasun eta eskubideak eskuratzea; ondare babestu hori Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 85. artikuluan aipatzen da.
6. Terrorismo-ekintzak nahiz nazioarteko giza edo bake laguntzako misio publikoetan emandako zerbitzuak direla medio hitzartu diren bizitzaren gaineko aseguruaren onuradunek jasotako kopuruak. Salbuespena onuradun izan daitezkeen guztiei aplikatuko zaie.
7. Jarduera ekonomikoaren finantzazioa bultzatzeko edo ekoizpen kapitalizazioa sustatzeko Europako funtsetako partaidetzak, martxoaren 21eko 02/2018 Foru Arauaren 5. edo 6. artikuluetan ezarritako baldintzak betetzen dituztenak, oinordetza edo legatuaren bidez eskuratzea, dagokionaren arabera, kausatzailearen ondarean Zerga sortzen den egunaren aurreko urtebetean, gutxienez, egon balira.
8. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 90. artikuluan ezarritako kenkaria aplikatu ahal izan zaien entitateetako akzioen edo partaidetzen jaraunspen bidezko edo beste edozein oinordetza-tituluren eskuraketak, ondorio horietarako aipatutako aginduaren 3. eta 7. paragrafoetan xedatutakoa kontuan hartu gabe.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa aplikatzeko, zergadunak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 90. artikuluan 6. paragrafoan aipatzen den ziurtagiria aurkeztu beharko du.
9. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 56 quater artikuluan aipatzen diren akzioen, partaidetzen edo eduki ekonomikoko eskubideen jaraunspen bidezko edo beste edozein oinordetza-tituluren eskuraketak.

III. TITULUA.

ZERGADUNAK ETA ERANTZULEAK

13. artikulua. Zergadunak.

1. Honako hauek zergadunak dira, eta zerga ordaindu beharko dute:
 - a) «Mortis causa» eskuraketetan, kausadunak eta onuraduna, azken horrek aseguruaren heriotza-kasurako bizitzaren gaineko aseguruak jasotzen dituenean.
 - b) Dohaintzetan eta gainerako dohaineko «inter vivos» eskualdaketatik, dohaintza-hartzailea edo eskuratzailea. Horrelakotzat hartuko da bizitzaren gaineko aseguruaren

onuraduna, aseguruak bizirik iraunez gero; edo banakako aseguruaren onuraduna, kontratugilea ez den pertsona aseguratu hilez gero.

2. Aurreko zenbakian ezarritakoa beti aplikatuko da, alderdiek ezarritako hizpaketak edo testamentugileak agindutako xedapenak zeinahi direla ere.

14. artikulua. Egozteko araubidea.

Sozietate zibilek, jarauntsi jasogabeek, ondasun-erkidegoek eta nortasun juridikorik izan gabe ekonomia-unitatea edo ondare bereizia osatzen duten eta zergapetu ahal diren gainerako erakundeek dohainik eskuratutako ondasun nahiz eskubideak bazkideei, jaraunseei, erkideei eta partaideei egotziko zaizkie, hurrenez hurren, kasu bakoitzean aplikatu ahal diren arau edo itunen arabera.

Zerga Administrazioak arau edo itun horien berririk ez badu, zati berdinetan egotziko zaizkie ondasun-eskubideok.

15. artikulua. Erantzuleak.

Honako hauek modu subsidiarioan izango dute zerga ordaintzearen erantzukizuna, emandako ondasunari dagokion kuotaren zatian, salbu eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauan erantzukizun solidarioari buruz jasota dauden arauak aplikatu behar direnean:

- a) Finantza-bitartekariak eta, gordailuen, bermeen edo kontu korronteen «mortis causa» eskualdaketetan, dirua edo gordailutako baloreak eman edo eraturako bermeak itzuli dituzten gainerako erakundeak, sozietateak edo pertsonak.

Ondorio horietarako, ez da dirua edo gordailutako baloreak ematez edo bermeak itzultzetan joko gordailuen, bermeen edo baloreen salmentaren emaitzaren kargura beharrezkoak diren banku-txekeak igortzea, baldin eta txekuek igortzearen helburu bakarra «mortis causa» eskualdaketa zergapetzen duen Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zerga ordaintzea bada, erregelamenduz ezartzen diren baldintzetan.

- b) Bizitzaren gaineko aseguruaren polizetan hizpatutako kopuruak ematen dituzten aseguru-konpaniak edo -erakundeak.

Ondorio horietarako, ez da aseguru-kontratuen kopuruak ematez joko prestazioaren konturako ordainketa egitea, baldin eta ordainketa horren helburu bakarra prestazio horren hartukizuna zergapetzen duen Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zerga ordaintzea bada, betiere ordainketa hori zergaren hartzekoduna den Administrazioaren izenean egindako banku-txekea onuradunei emanez egiten bada.

- c) Jarauntsiaren zati diren balore-tituluen eskualdaketan bitartekari direnak.

Ondorio horietarako, ez da joko bitartekari horiek zergaren erantzuleak direnik, baldin eta egiten duten gauza bakarra «mortis causa» eskualdaketa zergapetzen duen Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zerga ordaintzeko -eta horretarako soilik- beharrezkoak diren baloreak saltzea bada, jaraunseen aginduz, eta betiere salmenta horretan lortutako prezioaren kontra zergaren hartzekoduna den Administrazioaren izenean egindako banku-txekea ematen bazaie onuradunei.

16. artikulua. Erantzukizun subsidiarioa mugatzea eta iraungitzea.

1. Aurreko artikuluan aipatuta dagoen erantzukizun subsidiarioa erantzukizun hori sorrarazten duten ondasunen eskuraketari dagokion zerga-zatira mugaturik dago, hots, ondasunen balioari batez besteko karga-tasa efektiboa aplikatuz ateratzen den emaitzara mugaturik.

Ondorio horietarako, batez besteko karga-tasa efektiboa eragiketa honen emaitza izango da: kuota osoa zati likidazio-oinarria, eta emaitza bider 100. Zergaren batez besteko karga-tasa efektiboa bi hamartarrekin adieraziko da.

2. Likidazioaren eta autolikidazio partzialen zenbatekoa da, hain zuzen ere, erantzukizun subsidiarioaren muga, baldin eta aurreko zenbakian ezarritakoa aplikatuz ateratzen dena baino txikiagoa bada.
3. Likidazio partzialaren edo egindako autolikidazio partzialaren zenbatekoa ordaintzeak iraungiarazi egingo du kasuan kasuko ondasunak jarauntsiz eskualdatzeari dagokion zerga ez ordaintzearen ondorioz aurreko artikuluan aipatutako erakundeentzat sor litekeen erantzukizun subsidiarioa.

IV. TITULUA.

SORTZAPENA, PRESKRIPZIOA ETA IRAUNGITZEA

17. artikulua. Sortzapena.

1. «Mortis causa» eskuraketetan eta bizi-aseguruetan, kausatzailea edo asegurduna hiltzen den egunean sortuko da zerga, edota absentearen heriotza-adierazpena irmo bihurtzen denean, Kode Zibileko 196. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz.

«Alkar-poderoso»aren edo testamentu-ahalordearen bidezko jarauntsietan, ahalordea modu ezeztazinean erabiltzen denean edo bera azkentzeko arrazoietako baten bat gertatzen denean sortuko da zerga.

Eraginkortasuna unean bertan duten oinordetza-itunen kasuan eta foru arau honen 5. artikuluan definitzen diren uko egiteko oinordetza-itunen kasuan, izendatzailea bizirik dagoela gertatuko da zergaren sortzapena, hain zuzen ere eskualdaketa egiten denean.

Mortis causa eskuratzeko kasuan, baldin eta, Kode Zibilaren 1006. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, transmisarioa kausatzailearen oinordeko zuzena bada, eskualdatzailea hiltzen den egunean sortuko da zerga.

2. Inter vivos egiten diren doako eskuraketetan, kontratua gertatu edo egiten den egunean bertan sortuko da zerga.

Foru arau honen 5. artikuluan ezarritako salbuespenen eta 6. artikuluko f) letran xedatutakoaren ondorioz inter vivos negozio juridikotzat jotzen diren ondasuneta eskubide-eskuraketetan, eskualdatzea gertatzen den egunean sortuko da zerga.

3. Izendatzailea bizirik dagoela izendatutakoaren oinordetza-eskubideak, inter vivos edo mortis causa egintzen bidez, doan xedatzen direnean, Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legearen 106. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz, zerga ez da sortuko izendatzailea hiltzen den egunera arte.
4. Kontratugileak edo aseguratuak bizirik iraunez gero bizitzaren gaineko aseguru baten onuradunak kopururen bat eskuratuz gero, onuradunak jaso beharreko lehenengo kopurua (edo kopuru bakarra) eskatu ahal duen egunean hartuko da sortutzat egintza edo kontratua.
5. Baldintza, epemuga, fideikomiso edo beste edozein muga dagoelako eraginkortasuna etenik duten ondasun-eskuraketei dagokienez, aipaturiko mugak desagertzen diren egunean joko da gauzatutzat eskuraketa, eta egun hori hartuko da kontuan ondasunen balioa eta karga-tasak zehazteko.

18. artikulua. Preskripzioa eta iraungitzea.

1. Zerga Administrazioak zerga-zorrrak likidazioaren bidez zehazteko duen ahalaren nahiz -kasu bakoitzean dagozkion- zehapenak ezartzeko administrazio-ahalaren erabilera preskribatu eta iraungi ahal izango da, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauan eta hura garatu duten arau-xedapenetan ezarritakoaren arabera.

2. Atzerriko funtzionarioek eskuetsitako eskriturei dagokienez, eskritura horiek Espainiako administrazio bati aurkezten zaizkion egunean hasiko dira zenbatzen preskripzio- eta iraungipen-epeak, Espainiak sinaturiko tratatu, hitzarmen edo akordio batean epe hori zenbatzen hasteko beste egun bat ezarri ezean.
3. Sorburua agiri pribatu batera erantsitako dohaintza batean edo dohainekoa eta «inter vivos» den beste negozio juridiko batzuetan duten eskuraketetan, agiri horrek -Kode Zibileko 1227. artikuluan arabera- hirugarrenen aurrean ondorioak sortzen dituen unean hasiko da zenbatzen eskuraketa horien preskripzio- eta iraungitze-epea.

Aurreko lerroaldean ezarritakoaren kalterik gabe, agiri pribatuok zerga honen likidazioa egiteko aurkezten direneko eguna izango da, hain zuzen, agirion data, aurretik Kode Zibileko 1227. artikuluan ezarritako inguruabarretako bat gertatu denean izan ezik; izan ere, kasu horretan, eranste-, inskribatze-, hiltze- edo emate-data hartu beharko da kontuan, hurrenez hurren.

4. Jarauntsiari uko egitetik eta jarauntsia arbuizatetik datozen eskuraketen kasuan, ukoa eta arbuizatzea gertatzen diren egunetik hasiko dira zenbatzen Zerga Administrazioak zerga-zorrak likidazioaren bidez zehazteko duen ahala erabiltzeko preskripzio- eta iraungitze-epeak.
5. Zergadunek foru-arau honetako 66. artikuluan aipaturik dauden aitortenak eta agiriak aurkezteak eten egingo du Zerga Administrazioak ondasun eta eskubideak jarauntsiz, legatuz edo beste edozein oinordetza-tituluz eskuratzeari dagokion zerga-zorra likidazioaren bidez zehazteko duen ahala erabiltzeko preskripzio-epea, heriotzaren unean kausatzailearenak ziren edo foru-arau honetako 24-27. artikuluetan ezarritakoa aplikatuz haren jarauntsiko ondasunetara gehitu behar diren ondasun-eskubideei dagokienez.

V. TITULUA. ZERGA-OINARRIA

I. KAPITULUA. ARAU OROKORRAK

19. artikulua. Zerga-oinarria.

1. Hauek sartzen dira zerga honen zerga-oinarrian:
 - a) «Mortis causa» eskualdaketetan, kausadun bakoitzak eskuratutakoaren balio garbia, hots, ondasun-eskubideen balio errealetik kengarriak izan daitezkeen karga, zor eta gastuak kenduta ateratzen dena.
 - b) Dohaintzetan eta haiekin parekatu daitezkeen dohaineko «inter vivos» eskualdaketa guztietan, eskuratutako ondasun eta eskubideen balio garbia, hots, ondasun-eskubideen balio errealetik kengarriak izan daitezkeen kargak eta zorrak kenduta ateratzen dena.
 - c) Bizitzaren gaineko aseguruaren ondoriozko hartukizunetan, onuradunak jasotako kopuruak.
2. Zerga-oinarria, oro har, zuzeneko zenbatespenaren araubidearen arabera zehaztuko da, eta egin daitezkeen salbuespen bakarrak foru-arau honetan eta zerga-oinarrien zeharkako zenbatespenaren araubidearen arau erregulatzailuetan jasotako salbuespenak dira.

20. artikulua. Balioztatzea egiteko erregela bereziak.

1. Eskualdatutako ondasun eta eskubideei, orokorrean, haien balio erreala emango zaie, aurreko artikuluan ezarritakoarekin bat etorririk. Hala ere, kontuan hartuko dira artikulua

honetako gainerako zenbakietan nahiz eta foru-arau honetako 21. eta 22. artikuluetan ezarritako arau bereziak.

2. Aurreko zenbakian ezarritakoaren eta foru-arau honetako 37. artikuluan zein hurrengoetan aipatzen den administrazio-egiaztapenaren kalterik gabe, jarraian aipatzen diren ondasun eta eskubideen balioak honela zehaztu ahal izango dira:

- a) Hiri- eta landa-ondasun higiezinaren kasuan, esleitu beharreko gutxieneko balioa zehazteko arau teknikoak aplikatuz.
- b) Merkatuko batez besteko prezioa Zerga Administrazioak aldi-aldi argitaratutako taulak ofizialen bidez zehazten zaien ondasunen kasuan, taula horiek aplikatuz.
- c) Hipoteka, bahi eta antikresien kasuan, aurreko horiek bermaturiko betebeharrak edo kapitalaren zenbatekoa izango da beren balioa, eta, horren barruan, interesengatik aseguratzen diren kopuruak (bost urtez gehienez), kalte-ordainak eta ez-betetzeagatik ezartzen diren zehapenak edo antzeko kontzeptuak ere sartuko dira. Bermaturiko kopurua berriaz adierazi ez bada, kapitala eta hiru urteko interesak hartuko dira oinarritzat.
- d) Aurreko letran edo hurrengo artikuluetan sartuta ez dauden eskubide errealei emango zaien balioa alderdiek haiek eratzeko itundutako kapital, prezio edo balioa izango da, baldin eta kopuru hori urteko errenta edo pentsioa diruaren legezko interesaren arabera kapitalizatuz sortzen denaren berdina edo handiagoa bada; ordea, sortzen den kopuru hori arestian adierazitako kapital, prezio edo balioa baino txikiagoa bada, kopuru horixe bera izango da eskubideei egotziko zaien balioa.
- e) Pentsioak diruaren legezko interesaren arabera kapitalizatuko dira eta eragiketa horretatik ateratzen den kapitalek zati bat hartuko da, zeina foru-arau honetako 22. artikuluan gozamenak balioztatzeke ezarritako erregelen arabera zehaztuko den: pentsioa biziartekoa bada, pentsiodunaren adinari dagokion zatia hartuko da, edo pentsioa aldi baterakoa bada, berriz, pentsioaren iraupenari dagokiona.

Pentsioaren zenbatekoa moneta-unitatetan zenbatzen ez bada, hau egingo da zerga-oinarria kalkulatzeko: lanbide arteko gutxieneko soldataren zenbatekoa diruaren legezko interesaren arabera kapitalizatu.

Letra honetan ezarritakoa betetzeko, urteko bati dagokion kopurua kapitalizatuko da.

- f) Bigarren mailako merkatu ofizial batean negoziatzen diren baloreen eskualdaketetan, hau izan daiteke zerga-oinarria: balore horiek eskuratzen diren eguneko kotizazioaren araberrako benetako balioa, edo, bestela, baloreok aurreko hiru hilekoaren barruan negoziatu diren azken eguneko kotizazioaren araberrako benetako balioa.
- g) Beren tituluak bigarren mailako merkatu ofizialean negoziatzen jartzen ez dituzten erakundeek kapital sozialeko partaidetzen eskualdaketetan, eragiketa egiten den eguna baino lehen itxitako azken ekitaldiko balantzetik ondorioztatzen den eta eskualdatutako partaidetzei dagokien ondare garbiaren balioetik aterako da zerga-oinarria.

Benetan ordaindutako zenbatekoa alderdi independenteek merkatuko baldintza arruntetan hitzartuko zutenarekin bat datorrela frogatu ezean, eskualdaketa-balioak ezingo du honako bi hauetako handiena baino txikiagoa izan:

- a) Eragiketa egiten den eguna baino lehen itxitako azken ekitaldiko balantzetik ondorioztatzen den eta eskualdatutako baloreei dagokien ondare garbiaren balioa.
- b) Eragiketa egiten den eguna baino lehen itxi diren hiru ekitaldi sozialeko emaitzen batezbestekoa 100eko 20ko tasarekin kapitalizatuz ateratzen dena.

Azken ondorio horretarako, banatutako dibidenduak eta erreserbetarako esleipenak mozkin gisa konputatuko dira, balantzeak erregularizatu edo eguneratzeko erreserbetarako direnak kanpoan utzita.

Hiru ekitaldi horietako batean mozkinik sortu ez bada, mozkinik gabeko ekitaldiari dagokion mozkin bezala zero euro hartuko dira c) letra honetan aipatuta dagoen mozkinen batez bestekoa kalkulatzeko.

Halaber, oro har onartzen diren irizpide ekonomikoak eta kontabilitateko irizpideak aintzat hartuz, partaidetutako erakundeak ezkutuko gainbalioak, aktibo ez-materialak edo merkataritza-fondo inplizituak daudela zehazten bada, haien guztien zenbatekoa gehitu egin beharko zaio erakundeak onartutako azken balantzetik ateratzen den balio teorikoari, ondoren balioak erkatzeko, zenbaki honetako aurreko lerroaldeetan aipatzen den bezala, eta, ondorioz, dena delako kapitalaren gaineko partaidetzen balio erreala zehazteko.

- h) Gainerako balore negoziagarrietariko bat eskualdatzen denean, haren balio nominala izango da zerga-oinarria.
- i) Mailegu-hartzailearen berme pertsonala besterik ez duten maileguetan, fidantza bidez segurtatutakoetan, zorra onartzeko kontratuetan eta ordaindutako gordailuen kontratuetan, zerga-oinarria hau izango da: betebeharraren kapitala edo gordailututako gauzaren balioa.

Kreditu-kontuetan, mailegu-hartzaileak benetan erabili duen kopurua izango da zerga-oinarria.

Bahiz, hipotekaz edo antikesiz bermatutako maileguetan, kontuan hartu behar da zenbaki honetako c) letran ezartzen dena.

3. Aurreko zenbakian azaldutako erregelak aplikatzeak -a) eta b) letretan jasotakoak aplikatzeak izan ezik- ez du eragotziko Zerga Administrazioak beste balio erreal bat zehaztu ahal izatea, eta, horretarako, foru-arau honetako 37. artikuluan balioak egiaztatzeke zerrendatzen diren bitartekoak erabili ahal izango ditu, baldin eta irizten badio haiek aplikatuz ateratzen diren balioak ez datozela bat ondasun edo eskubide bakoitzak duen balio errealararekin; hala egin ahal izateko, bat ez-etortze hori behar bezala frogatu beharko du.

Alabaina, zerga hau dela-eta egindako aitorten edo autolikidazioan zergadunak errespetatu egin baditu aurreko 2. zenbakiko erregelak aplikatuz ateratzen diren balioak, bada, orduan, zergadun horri ezin izango zaio zerga-zehapenik jarri Zerga Administrazioak balio horiek egiaztatzearen ondorioz aldeak sortzen badira zerga-kuotan.

21. artikulua. Emakidak eta legez ezarritako balioa duten beste ondasun batzuk balioztatzea.

1. Jabari edo titulartasun publikoko zerbitzuak edo ondasunak ustiatzeko administrazio-emakidak, haien iraupena gorabehera, Ondare Eskualdaketan eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergan adierazitako irizpideen arabera balioztatuko dira.
2. Gehieneko besterentze-balioa tasaturik duten babes publikoko edo berdinetsitako administrazio-kategorietako etxebizitzak balioztatzeke, zerga-oinarriak ezingo du handiagoa izan etxebizitza horiei babes publikoko edo berdinetsitako administrazio-kategorietako etxebizitzari buruzko legeria aplikatuz dagokien gehieneko prezioa baino.
3. Konkurtsoko epailearen ebazpenetan eskualdatutako ondasun eta eskubideetarako finkatzen den balioa balio errealtzat hartuko da, eta, beraz, konkurtso-prozedura batean egiten diren ondasun- eta eskubide-eskualdaketetan ez da balioa egiaztatu beharko. Kasu horretan daude, halaber, epai bidez onetsitako hitzarmenean ezarritako kreditu-lagapenak nahiz likidazio-fasean egiten diren aktibo-besterentzeak.

22. artikulua. Gozamina eta beste instituzio batzuk.

Gozamen-eskubidearen tributazioari dagokionez, honako atal hauetan biltzen diren arauak aplikatuko dira:

- a) Aldi baterako gozamenaren balioa ondasunen balio osoarekiko proportzionala izango da, hots, %2 urtebeteko epe bakoitzeko, %70 gainditu gabe. Horretarako ez dira zenbatuko urtea baino laburragoa diren epeak, baina urtebete baino gutxiagorako diren gozamenen kasuan ondasunen balioaren %2 konputatuko da.

Biziarteko gozamenetan, berriz, haien balioa ondasunen balio osoaren %70 izango da, gozamenaren hogeita urte baino gutxiago dituenetan. Zenbat eta zaharragoa izan, ordea, urte bakoitzeko %1 txikituko da balioa; nolahi ere, gozamenaren balioa, gutxienez, ondasunen balio osoaren %10 izango da.

Jabetza soilako eskubidearen balioa ondasunen balio osoaren eta gozamenaren balioaren arteko diferentzia izango da.

Aldi berean biziarteko eta aldi baterako diren gozamenetan, aurreko erregelak aplikatuta jabetza soilari baliorik txikiena esleitzen diona aplikatuko da jabetza soilari balioztatzeko.

Gozamina pertsona juridiko baten alde eratu bada, pertsona fisiko bati egotzitako jabetza soilak zer balio duen zehazteko letra honetako erregelak aplikatuko dira, baina gozamenaren ezin da inoiz konputatu ondasunei egotzitako balio osoaren %60 baino gehiago. Portzentaje hori bera hartuko da kontuan gozamenak iraupen mugagabea duenean.

- b) Erabiltzeko eta biztantzeko eskubide errealeen balioa zehazteko, aldi baterako edo biziarteko gozamenak (kasu bakoitzean dagokiona) balioztatzeko erregelak aplikatuko zaizkio eskubideok eratzen dituzten ondasunen balioaren %75ari.

II. KAPITULUA.

«MORTIS CAUSA» ESKURAKETETARAKO ARAU BEREZIAK.

23. artikulua. Ondasunak eranstea.

1. «Mortis causa» eskuraketetan, kausadun bakoitzaren banakako partaidetza zehazteko, foru-arauek honetako 24-27. artikuluetan ezarritako presuntzioen ondorioz erantsitako ondasunak kausatzailearen jarauntsiko ondasunetan sartuzat joko dira, salbu eta presuntzio horien arabera pertsona zehatz batzuen zerga-oinarriari egotzi behar zaizkionean.

2. Aurreko zenbakian xedatutakoa ez da aplikatuko kausadun banakako partaidetza zehazteko, baldin eta testamentugileak kausadun horiei ondasun zehatz batzuk utzi badizkie, jarauntsiko gainerako ondasunetatik kanpo utzita.

Ondasun jakin batzuk gehi gainerako jaraunspen-masaren partaidetza bat utzi badie, berriz, ondasun erantsietan proportzionalki dagokien zatia konputatuko zaie, gainerako jaraunspen-masan duten partaidetzaren arabera.

3. Legatuen kasuan, testamentu-xedapenen arabera agintzen bada legatua zerga honetatik aske eman behar dela edo dagokion zerga jaraunsiaren kargura ordaindu behar dela, kasu horietan, bada, zergaren zenbatekoak ez du handituko legatu-hartzaileraren kargura egin beharreko likidazioaren zerga-oinarria eta ez da inoiz kengarria izango gainerako kausadun zerga-oinarria zehazteko.
4. Interesdunek uko egiten badiote ondasun eta eskubideak jarauntsiko ondasunen artean sartzeari -artikulu honetan ezarritako presuntzioen arabera-, orduan, haien balioa zerga-oinarritik kenduko da, harik eta sortutako auzia ekonomia-administratioko bidean behin betiko ebatzi arte.

5. Artikulu honetan xedatutakoaren ondorioetarako, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauan eta Ondarearen gaineko Zergari buruzko Foru Arauan titulartasunari eta titularkidetasunari buruz jasotzen diren presuntzioak aplikatu behar dira, hala badagokio, foru-arau honetako 29. artikuluan ezarritakoaren kalterik gabe.

24. artikulua. Hil aurreko urtean kausatzailearenak izateagatik erantsi daitezkeen ondasunak.

1. Heriotzaren ziozko eskuraketetan, jarauntsiko ondasunen osagaitzat hartuko dira hil aurreko urtean oinordetzaren kausatzailearenak izan diren mota orotako ondasunak, salbu eta sinesgarriri frogatzen bada ondasun horiek hark eskualdatu zituela eta ondasunok jaraunleak, legatu-hartzailea edo haietako baten edo kausatzailearen hirugarren gradura arteko ahaidea, ezkontidea edo izatezko bikoteko kidea ez den pertsona baten eskuetan daudela. Presuntzio hori hutsalduta geratuko da honako inguruabar hauetako bat behar den bezala frogatuz gero:
 - a) Jarauntsiko ondasunetan sartuta daudela, balio baliokidearekin, dirua edo desagertutako ondasunen lekuan subrogatutako beste ondasun batzuk.
 - b) Ondasunak dituenak ondasunok dohainik eskuratu zituela eta foru-arau honetako 12. artikuluan ezarritako tributu-salbuespenen bat lortu zuela.

Aurreko zenbakiko a) letran ezarritakoaren ondoretarako, ondasunak kausatzailearenak izan zirela uste izango da, baldin eta haren izenean bazeuden gordailuetan, kontu korrante edo aurrezki-kontuetan, bermedun maileguetan edo antzeko beste kontratu batzuetan edo baldin eta haren izenean erregistratuta ageri baziren katastro edo erregistro publikoetan. Dirua edo ondasun subrogatuak daudela justifikatzen ez bada ere, interesdunek eskubidea izango dute haiek benetan eskualdatu direla frogatzeko.

2. Presuntzio honen babesean egindako eransketak kausadun guztiei eragingo die jaraunleak diren proportzio berean, baldin eta sinesgarriri egiaztatzen ez bada ondasunak artikulu honetako 1. zenbakian adierazitako pertsonaren bati eskualdatu zaizkiola; izan ere, kasu horretan, eransketak pertsona horri bakarrik eragingo dio, zeina jaraunle edo legatu-hartzaile bihurtuko baita zerga-ondorioetarako, ordurako izaera hori ez badu.

25. artikulua. Hil aurreko hiru urteetan kausatzaileak gozamenean eskuratzeagatik erantsi daitezkeen ondasunak.

1. Jarauntsiko ondasunen osagaitzat hartuko dira kausatzailea hil aurreko hiru urteetan kausatzaileak berak kostu bidez gozamenean eskuratutako ondasunak eta eskubideak, bai eta epe horretan zehar jaraunleak, legatu-hartzaileak edo haietako baten edo kausatzailearen hirugarren gradura arteko ahaide batek edo ezkontideak edo izatezko bikoteko kideak jabetza soilean eskuratutako ondasunak eta eskubideak ere.

Presuntzio hori hutsalduta geratuko da honako hau behar bezala frogatuta: jabetza soilaren eskuratzaileak eskualdatzaileari dirua ordaindu ziola edo balio bereko ondasunak edo eskubideak eman zizkiola, jabetza soila eskuratzeko nahiko direnak.

Dirua edo ondasun subrogatuak daudela justifikatzen ez bada ere, interesdunek eskubidea izango dute kostu bidezko eskualdaketa benetan gertatu dela frogatzeko.

2. Presuntzio honen babesean egindako eransketak jabetza soila eskuratu duenari bakarrik egingo dio kalte: ondasunaren edo eskubidearen jabari osoa «mortis causa» eskuratzeagatik egingo zaio likidazioa. Likidazio hori egingo zaionez, baina, ez zaio egin beharko jabari osoa sendotzeari dagokion likidazioa.

26. artikulua. Hil aurreko lau urteetan kausatzaileak jabetza soila eskualdatzeagatik erantsi daitezkeen ondasunak.

1. Kausatzaileak hil aurreko lau urteetan eskualdatu dituen ondasun eta eskubideak jarauntsiko ondasunen osagaitzat hartuko dira, baldin eta beretzat gorde badu ondasun-eskubideon gozamina, eskuratzailearen beste ondasun-eskubide batzuen gozamina edo biziarteko beste edozein eskubide. Salbuespen dira eragiketa mota honetan legez diharduten erakundeekin kontratatzen diren biziarteko errentako aseguruak.

Presuntzio hori hutsalduta geratuko da honako hau behar bezala frogatuta: jarauntsiko ondasunetan badaudela jabetza soila eskualdatzeagatik jasotako dirua edo balio baliokideko beste ondasun batzuk.

Dirua edo ondasun subrogatuak daudela justifikatzen ez bada ere, interesdunek eskubidea izango dute haiek benetan eskualdatu direla frogatzeko.

2. Presuntzio honen babesean egindako eransketak jabetza soila eskuratu duenari bakarrik egingo dio kalte: eskuratzaile hori legatu-hartzailatzat hartuko da jaraunslea ez bada, eta hari egingo zaio ondasun edo eskubidearen jabari osoa «mortis causa» eskuratzegatik dagokion likidazioa. Likidazio hori egingo zaionez, baina, ez zaio egin beharko jabari osoa sendotzeari dagokion likidazioa.

27. artikulua. Baloreak edo efektuak endosatzeagatik erantsi daitezkeen ondasunak.

1. Ordezlagiriak endosatuta dituzten balore eta efektu gordailatuak jarauntsiko ondasunen osagaitzat hartuko dira, baldin eta, endosatzailea hil baino lehen, ordezlagiriok berreskuratu ez badira edo gordailuzainaren liburuetan ez bada endosuaren berririk jaso; endosatutako balore izendunak ere jarauntsiko ondasunen osagaitzat hartuko dira, baldin eta transferentzia ez bada kausatzailea hil aurretik agerrarazi erakunde jaulkitzailearen liburuetan.

Presuntzio hori hutsalduta geratuko da baldin eta behar bezala jasota geratu bada eskualdatutako ondasun eta efektuen prezioa edo balio baliokidea saltzailearen edo lagatzailearen ondarean sartu dela eta haren jarauntsiaren inbentarioan ageri dela, inbentario hori aintzat hartuko baita zerga likidatzeko; orobat, presuntzio hori hutsalduta geratuko da behar bezala justifikatzen bada baloreak edo efektuak kendu izana edo endosua jaso izana ezin izan dela egiaztatu kausatzailea hil aurretik, haren eta endosu-hartzailearen borondatearekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik. Hala ere, ondasunok foru-arau honetako 24-26. artikuluetan ezarritakoaren babesean erantsi ahal izango dira.

2. Artikulu honen babesean egindako eransketak baloreen endosu-hartzaileari bakarrik eragingo dio: legatu-hartzailatzat hartuko da, jaraunslea ez bada.

28. artikulua. Ondasunak ezin eranstea eta Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga kengarria izatea.

Foru-arau honetako 24-27. artikuluetan aipatzen diren ondasunak ez zaizkio jarauntsiari erantsiko, baldin eta ondasunen kostu bidezko eskualdaketen ondorioz ordaindutako Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren zenbatekoa handiagoa bada ondasunok osteko eskuraketa batean duten balioari jarraian adieraziko den tasa aplikatuz ateratzen den zenbatekoa baino; honako hau da tasa hori: presuntzio horrek eragindako jaraunslari edo legatu-hartzaileari Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergan egokituko litzaiokeen batez besteko tasa efektiboa, likidazioan balio hori sartu izan balitz.

Batez besteko karga-tasa efektiboa foru-arau honetako 16. artikuluan ezarritako eran kalkulatu da.

Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga dela-eta ordaindutako zenbatekoa txikiagoa bada, ondasuna erantsi egingo da; baina subjektu pasiboak

eskubidea izango du zerga hori dela-eta ordaindutakoa kentzeko Ondare Eskualdaketan eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren likidazioan.

29. artikulua. Indibiso egoeran dauden ondasunetan kausatzaileari egotz dakioken proportzioaren gaineko presuntzioa.

Jarauntsi jasogabeetan, ondasun-erkidegoetan eta nortasun juridikorik izan gabe ekonomia-unitatea edo ondare bereizia osatzen duten gainerako erakundeetan sartuta dauden ondasunetan kausatzaileari egotz dakioken partaidetza jarauntsiko ondasunei erantsiko zaie, kasu bakoitzean aplikatu beharreko arauetatik eta itunetatik ateratzen den proportzioan, eta Administrazioak haien berri sinesgarririk ez badu, berriz, zati berdinetan erantsiko zaie.

30. artikulua. Banakako partaidetzaren balio garbia zehaztea.

1. Kausadun bakoitzaren banakako partaidetzaren balio garbia zehazteko, honako hauek kenduko dira ondasun edo eskubideen baliotik:
 - a) Haien gaineko karga edo zamen balioa, kengarriak badira.
 - b) Kengarriak izateko baldintzak betetzen dituzten zorren balioa.
 - c) Gastu kengarrien zenbatekoa.
2. Testamentugileak pertsona jakin bati utzi badizkio kargak ukitutako ondasunak edo, testamentugileak xedatuta, zorra ordaintzea kausadunetarik baten kontura geratzen bada, kenkaria bakarrik izango da pertsona edo kausadun horrentzat.

31. artikulua. Karga kengarriak.

1. Ondasunen benetako baliotik bakarrik kendu ahal izango dira haien gainean zuzenean ezarrita agertzen diren betiko, aldi baterako nahiz askatzeko moduko kargak eta zamak, ondasunen kapitala edo balioa benetan gutxitzen badute -esaterako, zentsuak eta pentsioak-. Ez dira horrelakotzat hartuko eskuratzaileraren betebeharrak pertsonala dakarten kargak eta zamak, ez eta eskualdatutakoaren balioa gutxitzea eragiten ez dutenak ere -esaterako, hipotekak eta bahiak-; hala ere, haiek bermatzen dituzten zorrak kengarriak izango dira, hurrengo artikuluan ezarritako baldintzak betetzen badira.
2. Aurkeztutako agirietan ez bada berariaz adierazten pentsio, karga edo zama kengarrien iraupena, mugagabetzat joko da.
3. Kenkaria aplikatzeari begira, hau hartuko da zentsuaren baliotzat: aplikatzekoak diren Kode Zibileko edo foru-legeriako arauen arabera zentsua luditzeako eman behar den kapitala.
4. Horretarako, pentsioen balioa 20. artikuluko 2. zenbakiko e) letran ezarritakoaren arabera lortuko da. Pentsioduna hiltzean iraungitzen ez diren aldi baterako pentsioen kasuan, haiek balioztatzeko ez da aintzat hartuko gozamenak balioztatzeko finkatutako muga. Horrela lortutako balioa zuzentzeko, interesdunak zilegi du peritu-tasazio kontrajarria eskatzea.

Pentsioa iraungitzen denean, ondasunaren eskuratzaila behartuta dago pentsioa eratzeko garaian indarrean zegoen tarifaren arabera kendutako kapitalari dagokion zerga ordaintzera.

32. artikulua. Zor kengarriak.

1. «Mortis causa» eskualdaketetan, ondarearen balio garbia zehazteko, epai irmo bidez aitortuta dauden kausatzailearen zorrak ez ezik oinordetzaren kausatzaileak uzten dituen gainerako zorrak ere kengarriak izango dira, baldin eta zor horiek daudela egiaztatzen bada, agiri publiko baten bitartez edo Kode Zibileko 1227. artikuluko beharkizunak betetzen dituen agiri pribatu baten bitartez, edo beste era batera frogatzen bada zor horiek daudela. Ez dira kengarriak izango jaraunsleen edo zati alikuotaren legatu-hartzaileen aldeko zorrak,

ez eta aurreko horien ezkontideen, izatezko bikoteko kideen, aurrekoen, ondorengoen edo neba-arreben aldeko zorrak ere, nahiz eta jarauntsiari uko egin. Zerga Administrazioak zorra agiri publikoan berresteko eskatu ahal izango die jaraunslerei, hartzekoduna aurrean dela.

2. Bereziki, kengarriak izango dira kausatzaileak Estatuaren, Bizkaiko Foru Aldundiaren, autonomia-erkidegoen eta beste foru-aldundi edo toki-korporazio batzuen tributuen edo Gizarte Segurantzaren zorren zioz zor dituen kopuruak, baldin eta jarauntsiko ondasunen jaraunslerek, albazeek edo administratzaileek ordaintzen badituzte, nahiz eta tributu edo zor horiek hura hil eta gero igorritako likidazioetakoak izan.
3. Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zerga ordaindu ostean agerian jartzen diren kausatzailearen zorrak kentzeko, erregelamenduz ezarritako prozedurari jarraituko zaio.

33. artikulua. Gastu kengarriak.

1. «Mortis causa» eskuraketetan, honako hauek dira kengarriak zerga-oinarria zehazteko:
 - a) Testamentu-betetzeak edo abintestatoak auzi-izaera hartzen duten kasuetan, testamentu-beteteen edo abintestatoen legebidezko ordezkapena dela-eta jaraunslere guztien interes komunean auzi horretan sortzen diren gastuak, jarauntsiko ondasunen administrazioari dagozkionak izan ezik, baina baldin eta autoen testigantzaren bidez behar bezala frogatzen badira; arbitraje-gastuak ere kengarriak izango dira, baldintza berdinetan, jarduketan testigantzaren bidez egiaztatzen badira.
 - b) Jaraunslerek ordaindutako azken gaixoaldiko gastuak, frogatzen direnean.
 - c) Lurperatze eta hiletan gastuak, frogatzen direnean.
2. Ez dira kengarriak izango jarauntsiko ondasunak administratzeak dakartzan gastuak.

III. KAPITULUA.

DOHAINEKO «INTER VIVOS» ESKUALDAKETETARAKO ARAU BEREZIAK

34. artikulua. Kargak eta zamak kentzea.

Dohaintzetan eta gainerako dohaineko «inter vivos» eskualdaketa parekagarrietan, eskuratutako ondasun-eskubideen balio errealetik bakarrik kendu ahal izango dira foru-arau honetako 31. artikuluan ezarritako baldintzak eta arauak betetzen dituzten zorrak.

35. artikulua. Zor kengarriak.

Dohaintzan edo dohaineko «inter vivos» eskualdaketa parekagarri baten bitartez eskuratutako ondasunen baliotik soilik izango dira kengarriak eskualdatutako ondasun horien gaineko eskubide errealekin bermatuta dauden zorrak, eta baldin eta eskuratzailerak modu fede-emailean bereganatu badu bermatutako zorra ordaintzeko betebeharra.

Izan ere, betebeharrak hori modu fede-emailean bereganatzen ez badu, zorraren zenbatekoa ez da kengarria izango; nolana ere, eskuratzailerak eskubidea izango du zenbateko horri dagokion zerga-kuotaren itzulketa jasotzeko, baldin eta modu fede-emailean egiaztatzen badu zorra berak ordaindu duela, foru-arau honetako 18. artikuluan aipatzen diren preskripzio-eparearen barruan. Erregelamenduz arautuko da itzulketa hori nola egingo den.

IV. KAPITULUA. BIZI-ASEGURUETARAKO ARAU BEREZIAK.

36. artikulua. Ezkontide batek edo izatezko bikoteko kide batek ezkontza-sozietatearen edo izatezko bikotekidearen kargura kontratatutako aseguruak.

1. Asegurua bi ezkontideetako batek kontratatu badu irabazpidezko sozietatearen kargura eta onuradunak badira edo bizirik diraun ezkontidea edo, bestela, odolkidetasuneko aurreko edo ondorengo ahaideak, jasotako kopuru osoa sartuko da zerga-oinarrian.
2. Aurreko atalean jasotakoa izatezko bikoteei aplikatuko zaie, izatezko bikoteak ezartzen duen ondare- eta ekonomia-araubidea irabazpidezkoa bada.
3. Era berean, artikulua honetako aurreko zenbaki bietan ezarri-takoa aplikatuko da: ezkontzaren edo izatezko bikotearen arau-bide ekonomikoa ondasunen foru komunikazioa bada —Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko Legean araututa dago— eta aseguru hildako ezkontideak edo izatezko bikoteko kideak irabazitako ondasunen edo harengandik datozen ondasunen kargura kontratatu bada, betiere, azken kasu horretan, ondasunen foru komunikazioa finkatu egin bada, Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legearen 132. artikuluan ezarritakoarekin bat.

V. KAPITULUA. BALIOAK EGIAZTATZEA.

37. artikulua. Arau orokorrak.

1. Zerga Administrazioak beti egiaztatu ahal izango du eskualdatutako ondasunen eta eskubideen balio erreala.
2. Egiaztapena egiteko, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko 2005eko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauko 55. artikuluko 1. zenbakian ezarritako bideak erabiliko dira. Gainera, bide hauek ere erabil daitezke balioak egiaztatzeke:
 - a) Esleitu beharreko gutxieneko balioa zehazteko arau teknikoak, hiri- eta landa-ondasun higiezinaren kasuan, arauok aplikagarriak bazaizkie.
 - b) Zerga Administrazioak ondasun jakin batzuen batez besteko merkatuko prezioa zehazteko aldi-aldi argitaratutako taulak ofizialak.
3. Aurreko zenbakian ezarritakoa gorabehera, interesdunek balioztatzea egiteko erregela bereziak -foru-arau honetako 20. artikuluko 2. zenbakiko a) eta b) letretan aipatzen direnak- aplikatuz ateratzen den balioa jaso badute eskualdatutako ondasunen balio erreal moduan, balio hori ez da beste ezein bide erabiliz egiaztatu beharko.
4. Administrazioak egiaztatutako balioak lehentasuna edukiko du interesdunek aitortutakoaren aldean, nahiz eta aitortua handiagoa izan.

38. artikulua. Interesdunei jakinaraztea.

1. Zerga Administrazioak balioak egiaztatetik ateratzen den emaitza zerga honen subjektu pasiboei jakinaraziko zaie, oro har, behar bezain arrazoituta dagoen administrazio-egintza baten bitartez, zeina independentea izango baita ondoren egingo den likidaziorako administrazio-egintzatik.

Administrazioak ez du likidaziorik egingo harik eta egindako balio-egiaztapena irmoa izan arte. Bien bitartean, denbora-tarte horri dagozkion berandutze-interesak sortuko dira.

2. Administrazioak egiaztatutako balioek zerga-ondorioak izan baditzakete eskualdatzaileentzat, balioak egiaztatzeke egintza bereiz jakinaraziko zaie eskualdatzaileoi, egintza hori aurkaratu ahal dezaten -berraztertze-errekurtsoaren bidez edo bide ekonomiko-

administratiboan- edo egiaztapena peritu-tasazio kontrajarriaren bitartez zuzentzea eskatu ahal dezaten.

Erreklamazioa edo zuzenketa osorik edo zati batean onesten bada, emandako ebazpenak beti sortuko ditu ondorioak zerga honetako zergadunei dagokienez.

39. artikulua. Likidazioarekin batera jakinaraztea.

1. Aurreko artikuluan ezarritakoa gorabehera, Zerga Administrazioak interesdun guztiei batera eta administrazio-egintza bakarrean jakinaraz diezazkieke bai egindako balio-egiaztaketa, bai hari dagokion likidazioa.
2. Egindako likidazioaren ondoriozko zerga-zorraren diru-sarrerara automatikoki eta bermerik eman beharrik gabe etengo da baldin eta interesdunek aurkaratu egiten badute emandako administrazio-egintza, betiere egintza aurkaratzeko arrazoia Administrazioak egindako balio-egiaztapena bada.

40. artikulua. Balio-egiaztapena aurkaratzea.

Balioak egiaztatzen prozedurak eragiten dituen administrazio-egintzak, bereiz jakinarazi nahiz likidazioarekin batera jakinarazi, bide ekonomiko-administratiboan aurkaratu ahal izango dira, berraztertze-errekurtsoa bideratu ondoren, baldin eta aurkaratzearen oinarriak zerga-izaerako egiteko edo zuzenbideko arrazoiak badira.

Beste edozein kasutan, peritu-tasazio kontrajarria soilik erabili ahal izango da eskualdaturiko ondasun-eskubideen balioak egiaztatzearen ondorioz sortzen diren desadostasunak ebazteko.

41. artikulua. Peritu-tasazio kontrajarria.

1. Interesdunek kasu hauetan sustatu ahal izango dute peritu-tasazio kontrajarria: edo balioak egiaztatzen egintzaren aurka, egintza hori behar bezala jakinarazi bada; edo Administrazioak egiaztaturiko balioetan oinarriturik egindako likidazioaren aurka, haren aurkako lehenengo errekurtsu edo erreklamazioa aurkezteko epearen barruan.
2. Interesdunak uste badu jakinarazpenean ez direla behar bezala adierazi aitortutako balioak aldatzeko datuak eta zioak, eta inguruabar hori berraztertze-errekurtsoan edo erreklamazio ekonomiko-administratiboan salatzen badu, peritu-tasazio kontrajarria sustatzeko eskubideari eutsiz betiere, interesdun horrek hilabeteko epea izango du peritu-tasazio kontrajarria sustatzeko, jarritako errekurtsua edo erreklamazioa ebazten duen erabakia administrazio-bidean irmo bihurtzen den egunetik aurrera zenbatuta.
3. Peritu-tasazio kontrajarria Bizkaiko Lurralde Historikoko zergen kudeaketari buruzko Araudiko 97. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako prozeduraren arabera izapidetuko da.
4. Interesdunak peritu-tasazio kontrajarriko eskabidea aurkezten badu edo hura sustatzeko eskubideari eusten badio, likidazioaren betearazpena eten egingo da, horretarako bermerik eman beharrik gabe, eta eten egingo da, halaber, haren aurkako errekurtsua edo erreklamazioa jartzeko epea.

VI. TITULUA. LIKIDAZIO-OINARRIA

42. artikulua. Zerga-oinarriaren murrizketak.

1. Likidazio-oinarria zehazteko, foru-arau honetako hurrengo artikuluetan ezarritako murrizketak aplikatu behar zaizkio zerga-oinarriari.

Murrizketarik aplikatu behar ez bada, bat etorriko dira zerga-oinarria eta likidazio-oinarria.

2. Aurreko zenbakian ezarritakoa aplikatuta lortutako likidazio-oinarria ezin da inoiz negatiboa izan.

43. artikulua. Ahaidetasunaren ziozko murrizketak.

1. Aurreko artikuluetan ezarritakoaren kalterik gabe, «mortis causa» eskuraketetan edo beste edozein oinordetza-tituluren bidezko eskuraketetan, likidazio-oinarria kalkulatzeko, ahaidetasun-graduaren arabera murrizketak aplikatu behar zaizkio zerga-oinarriari; hona murrizketak:
 - a) I. taldea. Ezkontideak, izatezko bikoteko kideak, odol bidezko aurreko zein ondorengo zuzeneko ahaideek edo adopzio-hartzaile zein adoptatuek egindako eskuraketak: 400.000 euro.
 - b) II. taldea. Bigarren graduako alboko odol-ahaideen eskuraketak: 40.000 euro.
 - c) III. taldea. Hirugarren graduako alboko odol-ahaideek, ezkontza bidezko ondorengo eta aurreko ahaideek -izatezko bikotea eratzearen ondoriozkoak barne- egindako eskuraketak: 20.000 euro.
 - d) IV. taldea. Laugarren graduako alboko ahaideek, bigarren eta hirugarren graduako ezkontza bidezkoek, urrunagoko ahaideek eta arrotzek egindako eskuraketak: ez dago murrizketarik.

Eskuratzailerik desgaitasun fisiko, psikiko edo sensoriala badute edo mendekotasun-egoeran badaude, 100.000 euroko murrizketa aplikatuko da, kontuan hartu gabe zer murrizketa legokiekeen kausatzailearekin duten ahaidetasun-graduaren arabera.

Ondorio horietarako, honako hauek dira desgaitasuna izanda edo mendekotasun-egoeran egonda murrizketarako eskubidea duten pertsonak: Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga kenkarirako eskubidea duten pertsonak.

2. Bizitzaren gaineko aseguruaren zioz jasotako diru-kopuruak eskuratzen direnean, likidazio-oinarria lortzeko, aseguruaren kontratatzaile edo hartzailearen eta onuradunaren arteko ahaidetasunaren arabera murrizketak aplikatuko dira zerga-oinarrian. Hona hemen murrizketak:
 - a) 400.000 euro, I. taldean adierazitakoa bada.
 - b) %50 (200.000 euro, gehienez), II. edo III. taldeetan adierazitakoa bada.
 - c) %10 (40.000 euro, gehienez), IV. taldean adierazitakoa bada.

Hala ere, aseguru kolektiboetan edo enpresek euren langileentzat kontratatzen dituztenetan, aseguratuaren eta onuradunaren arteko ahaidetasuna kontuan hartuta aplikatuko dira aurreko murrizketak.

3. Baldin eta hildakoaren ezkontideak edo izatezko bikoteko kideak, aurrekoek zein ondorengoek, adoptatuek zein adopzio-hartzaileek edo hirugarren gradura arteko ahaideek (azken kasu horretan, ondorengorik edo adoptaturik ez badago) «mortis causa» eskuratzen badute pertsona bakarreko enpresa bat, lanbide-negozio bat edo Ondarearen gaineko Zergari buruzko Foru Arauan araututako salbuespena aplikagarri zaion erakunde-partaidetzaren bat, bada, orduan, halako eskuraketei zerga-oinarriaren %95eko murrizketa aplikatuko zaie, betiere eskuraketak bere hartan irauten badu hurrengo 5 urteetan (salbu eta eskuratzailerik epe horretan hiltzen bada).

Halaber, murrizketa hori aplikatzekoa izango zaio hala pertsona bakarreko enpresa baten, lanbide-negozio baten edo aurreko lerroaldean aipatutako erakundeetako partaidetzaren baten gaineko gozamen-eskubideen eskuraketari, nola gozamen hori iraungitzearen ondorioz sortutako eskubide ekonomikoen eskuraketari, baldin eta heriotzaren ondorioz

eskuratzaileak jabari osoa finkatzen badu edo gozamina iraungitakoan zor diren eskubideak kasuan kasuko enpresa, negozio edo erakundearen partaidetza gisa jasotzen baditu.

4. Baldin eta hildakoaren ezkontideak edo izatezko bikoteko kideak, aurrekoek zein ondorengoek, adoptatuek zein adopzio-hartzaileek «inter vivos» eskuratzen badute pertsona bakarreko enpresa bat, lanbide-negozio bat edo Ondarearen gaineko Zergari buruzko Foru Arauan araututako salbuespena aplikagarri zaion erakunde-partaidetzaren bat, bada, orduan, halako eskuraketei zerga-oinarriaren %95eko murrizketa aplikatuko zaie, betiere baldintza hauek betetzen badira:

- a) Dohaintza-emaileak hirurogeita bost urte edo gehiago izatea edo ezintasun iraunkorreko egoeran egotea, dela absolutua dela baliaezintasun handia.
- b) Dohaintza-emaileak, zuzendaritza-lanak bete izan baditu, eskualdaketa unetik beretik uztea lan horiek egiteari eta dagozkien ordainsariak jasotzeari.

Ondorio horietarako, sozietatearen administrazio-kontseiluko kide izate hutsa ez da zuzendaritza-funtzioen barruan sartuko.

- c) Dohaintza-hartzaileari dagokionez, eskuratutakoa mantendu beharko du eta Ondarearen gaineko Zergan salbuespena egiteko eskubidea izan beharko du dohaintzaren eskritura publikoaren dataren ondorengo bost urteetan zehar, epe horren barruan hiltzen denean izan ezik. Halaber, dohaintza-hartzaileak ezin izango du xedapen-egintzarik edo sozietate-eragiketarik gauzatu, eragiketok, zuzenean edo zeharka, nabarmen murriztu badezakete eskuraketa-balioa.

Zenbaki honetan aipatutako baldintzak betetzen ez badira, egindako murrizketaren ondorioz ordaindu ez den zerga-zatia eta dagozkion berandutze-interesak ordaindu beharko dira.

44. artikulua. Ohiko etxebizitzarekin lotutako murrizketak.

Etxebizitza baten jabari osoa, gozamina, jabetza soila, azalera-eskubidea edo erabili edo biztantzeko eskubidea doan eskuratzen bada, «inter vivos» edo «mortis causa», eta eskuratzailea eskualdatzailearekin batera bizi izan bazen etxebizitza horretan eskualdaketa gertatu aurreko bi urteetan, eskuraketa horrek %95eko murrizketa izango du zergaren zerga-oinarrian, 215.000 euroko gehieneko mugarekin.

Bizikidetasunari buruzko baldintza egiaztatzeko, errolda-ziurtagiria eta aldi horretan etenik gabe elkarrekin bizi izana frogatzen duen ziurtagiria aurkeztu beharko dira; horrez gain, Zuzenbidean onartzen den edozein frogabide erabiliz egiaztatu ahal izango da baldintza hori.

Artikulu honetan ezarritako gehieneko zenbatekoa gainditzen bada, bertan ezarritako zenbatekoaren mugarekin aplikatuko da murrizketa: handik gorako kopuruek ez dute murrizketarik izango.

Artikulu honetan ezarritakoaren ondorioetarako, murrizketa aplikatzeko ezinbestekoa da kontuan hartutako aldian, gutxienez, etxebizitza ohiko etxebizitza izatea hala eskualdatzailearentzat nola eskuratzailearentzat. Horretarako, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 87. artikuluko 8. zenbakian eta arau hori garatzeko araudian ezarritako betekizunak betetzen dituen hartuko da ohiko etxebizitzatzat.

45. artikulua. Nekazaritzarekin lotutako murrizketak.

1. Foru-arau honetako 12. artikuluan ezarritakoaren kalterik gabe, nekazaritzako ustiategi oso baten jabari osoa edo biziarteko gozamina doan eskuratzen badu, «inter vivos» edo «mortis causa», lehentasunezko beste ustiategi baten titularrak edo eskuraketaren ondorioz lehentasunezko izaera hori lortzen duen beste ustiategi baten titularrak, orduan, eskuraketa horrek %90eko murrizketa izango du zerga-oinarrian; baina baldintza bat bete behar da

horretarako: eskuratzaileren ustiategiaren lehentasunezko izaera ez da aldatu behar eskualdaketa ondotioz. Ustiategiaren eskualdaketa eskritura publiko baten bidez egin behar da.

Murrizketa %100ekoa izango da, berriz, titularraren ezkontideak, izatezko bikoteko kideak, odol bidezko aurreko zein ondorengo zuzeneko ahaideek edo adopzio-hartzaile zein adoptatuek ustiatagia ustiatzen jarraitzen badute.

Aurreko lerroaldean aipatutako ondorioetarako, nekazaritzako ustiatagia beti osorik eskualdatzen dela ulertuko da, nahiz eta etxebizitza kanpo utzi.

Murrizketa hau aplikatu ahal izateko, eskuraketako eskritura publikoan eta -beharrezkoa denean- Jabetza Erregistroan agertarazi behar da ezen, eskuratutako finak ondorengo bost urteetako epean besterenganatu, errentatu edo lagatzen badira, aurretik frogatu beharko dela ordainduta daudela murrizketa hau dela-eta egindako murrizketaren ondorioz ordaindu ez den zerga -edo zerga horren zatia- eta dagozkion berandutze-interesak, ezinbesteko kasuetan izan ezik.

2. Landa-finka baten edo nekazaritzako ustiategi baten zati baten jabari osoa edo biziarteko gozamina doan eskuratzen badu, «inter vivos» edo «mortis causa», lehentasunezko beste ustiategi baten titularrak edo eskuraketaren ondorioz lehentasunezko izaera hori lortzen duen beste ustiategi baten titularrak, orduan, eskuraketa horrek %75eko murrizketa izango du zerga-oinarrian.

Murrizketa hori aplikatu ahal izateko, eskualdaketa eskritura publikoan egin beharko da, eta nahitaez bete behar da aurreko zenbakiko azken lerroaldean ezarritakoa.

3. Nekazaritzako ustiategien titularrek doan eskuratzen badituzte lursail batzuk, «inter vivos» edo «mortis causa», ustiategiaren azaleraren %50 -gutxienez- muga bakarraren barruan osatzeko, eta ustiategiaren lanaren errenta unitarioa Nekazaritzako Ustiapenak Berriztatzeari buruzko 1995eko uztailaren 5eko 19/1995 Legean ezarritako mugen barruan badago, lehentasunezko ustiategiei zerga-onurak emateari dagokionez, bada, orduan, halako eskuraketek %50eko murrizketa izango dute zerga-oinarrian, baldin eta eskuraketako agiri publikoan agerrarazten bada ezen hortik ateratzen den finka zatiezina izango dela bost urteko epean, ezinbesteko kasuan izan ezik.
4. Artikulu honetako 1. eta 2. zenbakietan aipatzen diren zerga-oinarriko murrizketek %10eko gehikuntza izango dute, kasu bakoitzean eta %100eko mugarekin, baldin eta eskuratzaila nekazari gazte bat edo nekazaritzako soldatapeko langile bat bada, Nekazaritzako Ustiapenak Berriztatzeari buruzko 1995eko uztailaren 5eko 19/1995 Legean ezarritako betekizunak eta ezaugarriak betetzen dituena, eta eskuraketa lehenengo instalazioaren oste-oste bost urteetan zehar egiten badu.

Halaber, zerga-onura hau aplikatu dadin, derrigorrean bete beharko da artikulu honetako 1. zenbakiko azken lerroaldean ezarritako dagoena.

5. Basozaintzan erabiltzen diren landa-azalera jabari osoan edo jabetza soilean dohainik eskuratzeko, «inter vivos» edo «mortis causa», murrizketa izango du Zergaren zerga-oinarrian, honako eskala honen arabera:
 - %90ekoa, organo eskudunak naturaren interesagatik onartutako babes-planetan sartutako azaleretan.
 - %75ekoa, basoak antolatze plan bat, basoak kudeatu eta hobetzeko plan tekniko bat edo baso-plangintzako figura baliokideak dituzten azaleretan, plan horiek Administrazio eskudunak onartuak badira.
 - %50ekoa, basozaintzan erabiltzen diren gainerako landa-azaleretan, baldin eta eskualdaketa horren ondorioz onibarraren baso izaera aldatzen ez bada eta

eskuraketaren osteko bost urteetan ez bada eskualdatzen -dohaineko «inter vivos» negozio baten bitartez-, ez eta ustiapena errentan eman edo lagatzen ere.

Murrizketa bera izango du eskualdatzaileak beretzat gorde duen gozamenaren iraungipenak.

Zenbaki honetan arautzen diren zerga-hobariak nekazaritzako ustiategi osoari ezarriko zaizkio, dagokion eskalan, betiere ustiategi horretan basozaintzarako erabiltzen den azalera ustiategiaren azalera osoaren %80 baino gehiago bada.

VII. TITULUA. ZERGA-ZORRA

46. artikulua. Likidazio-erregelak.

1. «Mortis causa» edo «inter vivos» eskuraketek kausatzailearen edo dohaintza-emailearen -batetik- eta kausadunaren edo dohaintza-hartzailearen -bestetik- arteko ahaidetasun-graduaren arabera tributatuko dute.

Kausadunak ezezagunak badira, arrotzen arteko oinordetzari dagokion tarifa aplikatuz egingo da likidazioa. Hala ere, itzulketa egin ahal izango da haiek ezagun bihurtzen direnean.

2. Bizitzaren gaineko aseguruen zioz jasotako kopuruak likidatzeko, jaraunspen-masa osatzen duten ondasunak eta eskubideak bereiziz egiten diren «mortis causa» eskualdaketarako tarifa bera aplikatuko da.

Bizitzaren gaineko aseguruen kasuan, aseguruaren kontratugile edo hartzailearen eta onuradunaren arteko ahaidetasun-graduaren arabera tributatuko da. Aseguru kolektiboetan edo enpresek euren langileentzat kontratatzen dituztenetan, berriz, kontuan hartuko da zer ahaidetasun-gradu dagoen aseguratuaren eta onuradunaren artean.

3. Dohaintza baten bidez edo dohainekoa eta «inter vivos» den negozio juridiko baten bidez ondasun-eskubideak eskuratzen badira ondorengoan edo adopzioan hartutakoen alde, baina eskuraketa horren aurre-aurreko azken lau urteetan ondasun-eskubide horiek berberak eskuratzen badira -ondorengo batek edo adopzioan hartutako batek arbasoaren edo adopzio-hartzailearen alde egindako dohaintza baten bidez edo dohainekoa eta «inter vivos» den negozio juridiko baten bidez eskuratu ere-, bada, kasu horretan, eskuraketa horren tributazioa lehen dohaintza-emaileak azken dohaintza-hartzailearekin duen ahaidetasunaren arabera egingo da, eta, hala badagokio, lehenengo dohaintza dela-eta ordaindutako kuota kengarria izango da.

47. artikulua. Kuota osoa.

Zergaren kuota osoa lortzeko, ondoren ageri diren tasa edo tarifen artean dagokiona aplikatuko zaio foru arau honetako VI. tituluari adierazitako moduan kalkulaturiko likidazio-oinarriari, foru arau honetako 43. artikuluko 1. zenbakian zehazten diren ahaidetasun- graduen araberrako taldeak kontuan hartuta:

- a) I. taldea. Ehuneko 1,5eko zerga-tasa aplikatu beharko da.
- b) II., III. eta IV. taldeei tarifa hauek aplikatuko zaizkie:

I. Tarifa. II eta III Taldeak:

Likidazio oinarri gehienez (€)	Kuota osoa (€)	Likidazio oinarriaren gainerakoa, gehienez (€)	Tasa%
0,00	0,00	9.230,00	5,70

9.230,00	526,11	18.450,00	7,98
27.680,00	1.998,42	18.450,00	10,26
46.130,00	3.891,39	46.110,00	12,54
92.240,00	9.673,58	92.220,00	15,58
184.460,00	24.041,46	276.650,00	19,38
461.110,00	77.656,23	461.080,00	23,18
922.190,00	184.534,57	1.383.230,00	28,50
2.305.420,00	578.755,12	Hortik aurrera	34,58

II. Tarifa. IV Taldeak:

Likidazio oinarri gehienez (€)	Kuota osoa (€)	Likidazio oinarriaren gainerakoa, gehienez (€)	Tasa%
0,00	0,00	9.230,00	7,60
9.230,00	701,48	18.450,00	10,64
27.680,00	2.664,56	18.450,00	13,68
46.130,00	5.188,52	46.110,00	16,72
92.240,00	12.898,11	92.220,00	20,52
184.460,00	31.821,66	276.650,00	25,08
461.110,00	101.205,48	461.080,00	29,64
922.190,00	237.869,59	1.383.230,00	35,72
2.305.420,00	731.959,34	Hortik aurrera	42,56

48. artikulua. Kenkaria nazioarteko zergapetze bikoitzagatik.

Zerga honen kuota osotik honako zenbateko hauetako txikiena kenduko da:

- a) Zerga honen menpeko ondare-gehikuntzari eragiten dion karga dela-eta atzerrian ordaindutako benetako zenbatekoa.
- b) Espainiatik kanpo kokatuta dauden ondasunei edo Espainiatik kanpo erabil daitezkeen eskubideei dagokien ondare-gehikuntzari zerga honen batez besteko tasa aplikatuz ateratzen dena, baldin eta ondasun-eskubideok antzeko zerga baten kargapean egon badira atzerrian.

Aurreko lerroaldean aipatzen den batez besteko tasa foru-arau honetako 16. artikuluan ezarritako eran kalkulatu da.

VIII. TITULUA. ARAU BEREZIAK

49. artikulua. Gozamenari nahiz erabili eta biztantzeari buruzko beste arau berezi batzuk.

1. Gozamen-eskubideak nahiz erabili eta biztantzeko eskubideak eskuratzean, eskubideon balioaren gaineko likidazioa igorriko da, eta, hala badagokio, eskuratzaileri dagokion murrizketa aplikatuko da.
2. Gozamen-eskubidea dela-eta arau hauek bete behar dira:

- a) Gozamina iraungitzen denean, eraketa-tituluaren arabera eskatuko da Zerga.
- b) Jabetza soila eskuratzean, likidazioa egingo da, jabetza horri dagokion balioa kontuan hartuta, eta, hala badagokio, jabe soilak eskubidez dituen murrizketa guztien zenbatekoa beste gutxituko da likidazio hori.

Aurreko likidazioa gorabehera, gozamina iraungitzean, lehenengo jabe soilak likidazio bat egin behar du kontzeptu horrengatik, zeina jabetza soila eskuratu zuenean zerga ordaintzetik kanpo geratu ziren ondasunen balio osoaren portzentajearen gainean egingo den. Jabaria sendotu zen unean ondasunek zuten balioaren gainean aplikatuko da portzentaje hori, iraungitzearen unean indarrean dauden zergaren araudiko arauekin bat.

- c) Jabe soilak bere eskubidea eskualdatzen duen kasuetan, eta kontuan hartu gabe zein den eskuratzailerari egiten zaion likidazioa -zeina-jabetza soilak une horretan duen balioa oinarri hartuta eta eskuraketa-tituluari dagokion karga-tasaren arabera egingo baita-, jabe soil berriak jabari osoa sendotzen duenean likidazioa egingo zaio jabe soil horri, zenbaki honetako b) letran ezarritakoarekin bat lehenengo jabe soilari legokiokeen likidazioa, alegia.
- d) Hala ere, baldin eta lehenengo jabe soilaren edo ondorengo jabe soilen jabaria gozamedunaren heriotzagatik edo ezarritako epea igarotzea ez den arrazoi batengatik sendotzen bada, eskuratzailerak bi likidazio hauetako handiena bakarrik ordainduko du: edo jabaria zatitzeagatik egin gabe dagoena, edo gozamina iraungitzea dakarren negozio juridikoari dagokiona.

Sendotzea gozamedunari badagokio, berak ordainduko du jabetza soila eskuratzeko dakarren negozio juridikoari dagokion likidazioa.

Sendotzea baldin badagokio gozamen-eskubideak eta jabetza soila aldi berean eskuratzen dituen hirugarren bati, eskuraketa horiei dagozkien likidazioak baizik ez dira egingo.

- e) Horren ondorengo gozamenetan, jabetza soilaren balioa kalkulatzeko, portzentajerik handieneko gozamina hartuko da kontuan, eta, gozamen hori iraungitzean, jabetza soilak duen balio-igoerari dagokiona ordainduko du jabe soilak, eta horrela egingo da, hurrenez hurren, gainerako gozamenak iraungitzean.

Arau bera aplikatuko da gozamina bi ezkontideen edo izatezko bikoteko bi kideen alde aldi berean eratu denean, baina jabaria sendotzeagatik egin beharreko likidazioa azkena hiltzen denean bakarrik egingo da.

- f) Onartutako gozamen bati uko egitea, uko huts eta soila izan arren, gozamedunak gozamina jabe soilari dohaintzan ematetzat hartuko da zerga-ondorioetarako.
- g) Gozamina gozamedunaren bizitza ez den baldintza suntsiarazle batekin erutzen bada, biziarteko gozamenetarako ezarritako erregelak hartuko dira kontuan likidazioa egiteko. Hala ere, baldintza betetzen denean beste likidazio bat egingo da, aldi baterako gozamenerako ezarritako erregelen arabera: egin beharreko zuzenketak egingo dira, eta ordainketa egingo da edo dagokion zenbatekoaren itzulketa eskatuko da.

3. Erabili eta biztantzeko eskubideak direla eta:

- a) Egiten den likidazioaren zerga-oinarriak kontuan hartuko du eskubideon titularrak zer harreman duen gozamedunarekin -halakorik egonez gero- edo, bestela, jabe soilarekin.
- b) Erabili eta biztantzeko eskubideak iraungitzean, zerga eskatuko zaio gozamedunari, gozamenik badago, haren balioak izandako gehikuntzagatik, egin beharreko

murrizketak eginda; gozamenik ez badago, berriz, jabe soilari egingo zaio eskubide horiek iraungitzeari dagokion likidazioa.

Gozamena lehenago iraungitzen bada erabili eta biztantzeko eskubideak baino, jabe soilak ordainduko du gozamen-eskubide hori iraungitzeak eragindako sendotze partzialari dagokion likidazioa, jabetza soilaren balioak iraungitzearen ondorioz izan duen gehikuntzaren arabera.

50. artikulua. Gozamen-eskubidearekin edo erabilera-eskubidearekin pareka daitezkeen instituzioak.

1. Kausatzailearen xedapenen ondorioz edo oinordetzaren arau zibilak aplikatzearen ondorioz pertsona bati egozten bazaio jarauntsi bateko ondasunez osorik edo partez gozatzeko eskubidea, dela aldi baterako dela bizi artean, bada, kasu horretan eta zerga-ondorioetarako, ulertuko da gozamen-eskubide bat edo erabilera-eskubide bat dagoela, eta eskubide hori -duen izena edozein dela ere- aldi baterako edo biziarteko gozamen- edo erabilera-eskubideetarako ezarritako arauen arabera balioztatuko da.

Hala ere, eskuratzailerak ondasunak xedatzeko eskubidea badu, jabari osoari dagokion zerga likidatuko zaio. Hala ere, jabetza soilari dagokion zergaren zatia itzuli ahal izango zaio, baldin eta justifikatzen bada ondasunok testamentugileak edo aplikatu beharreko arategiak adierazitako pertsonari eskualdatu zaizkiola.

2. Aurreko zenbakian ezarritakoa gorabehera, Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legean araututa dauden komisario bidezko testamentuetatik eta testamentu-ahalordeetatik datozen gozamen-eskubideen kasuan foru arau honen 53. artikuluan berariaz ezarritako arauak aplikatuko dira.

51. artikulua. Ordezpenak.

1. Ordezpen arruntean, ordezkoak kausatzailearena jarauntsiko du, eta, horren ondorioz, zerga eskatuko zaio, baldin eta izendatutako jaraunslak lehenago hiltzen bada edo kausatzailearekin duen ahaidetasuna dela-eta jarauntsia onartu ezin badu.

Izendatutako jaraunslak jarauntsia onartu nahi ez badu, foru-arau honetako 60. artikuluan jaraunsiari uko egiten zaion kasurako ezartzen dena aplikatuko da.

2. Zurtz-ordezpenean eta onbidezko ordezpenean, ordezkoak ordeztuarena jarauntsiko du eta hari egingo zaio zergaren likidazioa, ordezpena gauzatzen denean, ondorengo ordeztuarekin duen ahaidetasun-graduaren arabera. Hala ere, kontuan hartuko da ondorengo horrek testamentugilea hildakoan ordaindutakoa.
3. Fideikomisoetako ordezpenetan, izendapenean zein ordezpen bakoitzean eskatuko da zerga, izendatuak edo ordeztuak kausatzailearekin duen ahaidetasun-gradua kontuan hartuta, eta fiduziarioa nahiz fideikomisodunak -azkena izan ezik- gozamendun soiltzat hartuko dira, salbu eta ondasunak «inter vivos» edo «mortis causa» egintzen bidez xeda baditzakete; kasu horretan, jabari osoa likidatuko da, eta foru-arau honetako 17. artikuluko 4. zenbakian ezarritakoa aplikatuko da.

Azken kasu horretan, kausatzaileak ordaindutako zerga itzultzea eskatuko ahal izango dute jaraunslaren kausadunek, jabetza soilari dagokion zatian, baldin eta frogatzen badute ordezpenak eragindako ondasunak testamentugileak izendatutako ordezkoari eskualdatu zaizkiola.

52. artikulua. Fideikomisoak.

1. Fideikomisoetan, likidazioa egin behar den epeetan ez badago jakiterik nor den jaraunslak fideikomisoduna, orduan, arrotzen arteko oinordetzari dagokion tarifa likidazio-oinarriari aplikatuz ateratzen dena ordainduko du fiduziarioak, kausatzailearekin duen ahaidetasuna edozein dela ere.

Aurreko leerroaldean ezarritako erregela ez da aplikatuko baldin eta fideikomisoduna pertsona talde zehatz batetik izendatu behar bada; izan ere, kasu horretan, kausatzailearekin urruneneko ahaidetasun-gradua duen pertsonari dagokion taldearen tarifa aplikatuko zaio likidazio-oinarriari.

2. Aurreko zenbakiarekin bat etorririk ordaindutakoak fideikomisodunari egingo dio mesede, fideikomisoduna ezagutzen denean, baina ez du ezer itzultzea eskatzeko eskubiderik izango, baldin eta kausatzailearekin duen ahaidetasunaren arabera tarifa txikiago bat aplikatu behar bazaio.

Aldiz, fideikomisodunari dagokion tarifa fiduziarioari aplikatutakoa baino txikiagoa bada, gehien ordaindu duenak edo haren kausadunek eskubidea izango dute ordaindutako gaindikina itzul dakien, erregelamenduz ezarritakoaren arabera.

3. Likidazioa egiteko epeen barruan ezagutzen bada fideikomisoduna nor den, fideikomisodunak berak ordainduko du zerga, kausatzailearekin duen ahaidetasun-graduari dagokion tarifaren arabera.
4. Fiduziarioak edo testamentugileak jarauntsia eskualdatzeko agindu dion pertsonak osorik edo zati batean lupertu ahal baditu ondasunak, aldi baterako edo bizi artean, edo ahalmena badu ondasunok jaraunsle fideikomisodunari eman arte haien errentak edo produktuk xedatzeko, kasu batean zein bestean gozamedun gisa ordainduko du zerga, kausatzailearekin duen ahaidetasunaren arabera.

Kasu horretan, ondasunen edukitza eskuratzean ere dagokion zerga ordaindu beharko du fideikomisodunak, fiduziarioak ordaindutakoa bere alde konputatu gabe.

5. Jaraunsle fiduziarioari jarauntsiko ondasunak jabetzan uzten zaizkion fideikomisoetan, nahiz eta kargaren bat kentzeko betebeharra izan, jaraunsle horren kontura likidatuko da jabetza eskuratzeak dakarren zerga, arestian aipatutako karga hori kenduta, kengarria bada. Horrelakoetan, kargaren ondoriozko onura eskuratzen duena ezaguna bada, berak ordainduko du zerga, egintza horri juridikoki dagokion titulu edo kontzeptua dela-eta; aldiz, onuraduna ezezaguna bada, jaraunsleak ordainduko du kontzeptu horri dagokion zerga, eta kargarengatik ordaindutako zerga onuradunari jasanaraz diezaiokie, onuraduna nor den ezaguna denean.

53. artikulua. Gozamena «alkar-poderosoaren» edo testamentu-ahalordearen menpeko jarauntsietan.

1. Baldin eta «alkar-poderoso» edo testamentu-ahalordean pertsona jakin bati eman bazaio jarauntsiko ondasunez bizi artean gozatzeko eskubidea, eta, betiere, Euskal Autonomia Erkidegoko Foru Zuzenbide Zibilar buruzko uztailaren 1eko 3/1992 Legea indarrean jarri aurretik ezkontide alargunari egiletsitako testamentu- ahalordeetan, gozamen horren likidazio bakarra egingo da, gozamedunak kausatzailearekin duen ahaidetasunaren arabera, eta biziarteko gozamenei buruzko arauak aplikatuta.
2. Baldin eta «alkar-poderoso» edo testamentu-ahalordean gozamena azkentzen bada ahalorde hori erabiltzen denean, gozamen horren bi likidazio egingo dira, gozamedunak kausatzailearekin duen ahaidetasunaren arabera:

- a) Lehenengo likidazioa, kausatzailea hiltzen denean, biziarteko gozamenari buruzko arauak aplikatuta.

Testamentu-ahalordea erabiltzeko epea zehaztuta badago, ordea, lehenengo likidazio hori aldi baterako gozamenaren arauekin bat egingo da, ahalorde hori erabiltzeko ezarrita dagoen gehieneko epearen arabera.

- b) Beste likidazio bat, «alkar-poderoso» edo testamentu-ahalordea erabiltzen denean, aldi baterako gozamenaren arauekin bat, kausatzailearen heriotzatik igarotako

denboraren arabera. Aurreko likidazioagatik ordaindu dena konturako sarreratzat joko da, eta diferentzia gozamenunari itzuliko zaio, haren aldekoa bada.

Honako b) letra honetan aipatutako likidazioa eta «alkar-poderoso» edo testamentu-ahalorea baliatzeagatik edo bera azkentzeko gainerako arrazoiengatik jaraunse diren likidazioa aldi berean egingo dira, eta kontuan hartuko da kausatzailea hiltzean ondasunek zuten balioa.

3. Artikulu honetan aipatutako gozamenak kalkulatzeko, foru arau honen 22. artikuluan biziarteko gozamenari eta aldi baterako gozamenari buruz ezarritako arauak aplikatuko dira.

54. artikulua. Testamentu-ahalorearen erabilera.

1. Baldin eta komisarioak edo kausatzailearen ezkontide edo izatezko bikoteko kide alargunak testamentu-ahalorea erabiltzen badu eta horren bidez ezkontza osteko ondasun-erkidegoaren ondasun jakin bat —kausatzailearen heriotzak ondasun-erkidego foralaren ezkontzaren araubide ekonomikoan eragindako sendotzearen ondorio dena— edo irabazpidezko sozietatearen ondasun jakin bat komisarioaren eta kausatzailearen ondorengo komun bati adjudikatzen badiu, baina jarauntsia banatu eta likidatu gabe, bada, orduan, ezkontide edo izatezko bikoteko kide alargunaren erdia dohaintza gisa likidatuko da eta beste erdia, kausatzailearena, oinordetza gisa.

Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legearen 142. artikulua betetzen ez bada, artikulu horretan aipatzen diren ondasunak ezkontideari edo izatezko bikoteko kideari adjudikatzeak foru-arau honetako 47. artikuluko a) letran ezarritako zergatasaren arabera tributatu du.

2. Testamentu-ahalorearen bidezko oinordetzetan, honako likidazio hauek egin beharko dira, hala behar denean: bat kausatzailea hil eta berehala, ahalordeak ez ukituriko jaraunsiaren zenbatekoaz, eta ahalordearen oinordetza-jardun ezeztazineki edo beste edozein arrazoia dela bide ahalorde hori azkentzearen ondorioz eratorritako eskuratzeei dagozkienak.
3. Guztiz edo partez «alkar-poderoso»aren edo testamentu-ahalorearen bidezkoak diren jaraunsi guztietan, zerga likidatzeko eta foru-arau honetan zerga-oinarrirako aurreikusten diren murrizketak aplikatzeko pilatu egingo dira ondorengo bati dagozkion eskuraketa guztiak.

Eskuraketa horien ondoriozko ondasun eta eskubideen balioa sortzapenaren unean izan zutena izango da.

Horrela, testamentu-ahalorea guztiz edo partez erabiltzearen edo hura iraungitzeko gainerako arrazoen ondorioz ondorengo bati kausatzaile berarengandik datozkion jaraunsiako eskuraketa guztiak eskuraketa bakartzat joko dira zerga likidatzeko. Beraz, zerga-kuota kalkulatzeko, zerga-oinarri guztiak batuko dira, eta foru-arau honetan araututako zerga-oinarriaren murrizketen artetik aplikatu beharrekoak behin bakarrik aplikatuko dira.

Gainera, metatutako likidazioengatik lehenago ordaindutako kuotak kendu egin ahal izango dira metaketa horren ondorioz egiten den likidaziotik, baina ez da inoiz kuotarik itzuliko.

54 bis artikulua. Oinordetza-eskubideen xedapena Euskal Zuzenbide Zibilean.

1. Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legearen 106. artikuluan araututako eskubideen xedapenen ondoriozko eskubide eta ondasunen eskuraketak izendatzailearen eta izendatutakoaren ondorengo arteko ahaidetasun-mailaren arabera ordainduko dira.
2. Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legearen 100. artikuluko 2. idatz-zatiko bigarren tartekian ezarritakoarekin bat etorriz, hirugarren baten jaraunsiaren

oinordetza-eskubideak xedatzearen ondoriozko uko-egitearen onuradunaren eskubide eta ondasunen eskuratzea hirugarren hori hiltzen denean ordainduko da, xedapenaren onuradunaren eta kausatzailearen arteko ahaidetasunaren arabera; halaber, hala badagokio, uko-egileari emandako eskubide eta ondasunen balioa kenduko da.

55. artikulua. Ondasunak erresebatzea.

1. Erresebapeko ondasunen jarauntsian, Kode Zibileko 811. artikulua eta Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legearen 118. artikulua arabera, erresebagileak ordainduko du zerga, gozamedun gisa, baina erreseba beren alde eraturik duten ahaide guztiak hiltzen badira edo ahaideok erresebari uko egiteagatik erreseba iraungi egiten bada, jabetza soilari dagokion zerga ordaindu beharko du erresebagileak.
2. Erresebagileak erresebapean dauden ondasunak besterenduko balitu, nahiz eta ustezko erreseba-hartzaile guztien adostasuna izan, erreseba fiskalki iraungitzat joko litzateke eta hala likidatuko litzateke.
3. Kode Zibileko 968, 969, 979 eta 980. artikuluetan eta Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legearen 120. artikuluan aipatzen diren erreseben kasuan, erresebagileari likidatuko zaio zerga, ondasunen jabari osoa dela eta; nolahi ere, erresebak eragindako ondasunen jabetza soilari dagokion zatiagatik ordaindutakoaren itzulketa jasotzeko eskubidea izango du, egiaztatzen badu ondasunok erreseba-hartzaileari eskualdatu dizkiola.
4. Kasu guztietan, ondasunak eskuratzen dituzenean ordainduko du zerga erreseba-hartzaileak, beraren eta ondasunen jatorri den pertsonaren artean dagoen ahaidetasun-graduari begiratuta; horretarako ez da aintzat hartuko zer ahaidetasun duen erresebagilearekin, nahiz eta azken horrek aurretik erabilita izan Kode Zibileko 972. artikuluan aipatzen den hobetzeko ahalmena.

56. artikulua. Jarauntsi bidezko eskuraketan metaketa.

1. Kausadun batek kausatzaile jakin batengandik jarauntsi baten ondorioz lortzen dituen ondare-gehikuntza guztiak jarauntsi bidezko eskuraketa bakartzat joko dira, nahiz eta oinordetza-titulu baten baimo gehiagoren bidez lortuak izan.
2. Hori dela eta, jasotako ondasun- eta eskubide-eskuraketa guztiak metatu egingo dira; horrenbestez, eraginkortasuna unean bertan duten oinordetza-itunen ondorio diren eskuraketak, testamentu-ahalordearen erabilera partzial edo osoaren ondorio direnak edo ahalorde hori iraungitzeko bestelako arrazoien ondorio direnak metatuko dira, baina baita testamentugileak berak testamentuan zuzenean xedatutakoak direnak zein hura falta delako Legeak xedatutakoak direnak ere.
3. Artikulu honetako aurreko bi zenbakietan aipatu diren ondare-gehikuntza guztiak jarauntsi bidezko eskuraketa bakartzat hartuko dira zerga likidatzeko. Beraz, zerga-kuota kalkulatzeko, zerga-oinarri guztiak batuko dira, eta foru-arau honetan araututako zerga-oinarriaren murrizketen artetik aplikatu beharrekoak behin bakarrik aplikatuko dira.

Gainera, metatutako likidazioengatik lehenago ordaindutako kuotak kendu egin ahal izango dira metaketa horren ondorioz egiten den likidaziotik, baina ez da inoiz kuotarik itzuliko.

57. artikulua. Itzulketetan likidazioa egiteko arauak.

1. Mantenu-beharra duen oinordetza-itun baten bidez eskualdatu diren ondasunak eratzaileri itzultzen bazaizkio, beste likidazio bat egingo da, foru-arau honetako 22. artikuluan aldi baterako gozamedi buruz ezarritako arauak betez, eta itzuli diren ondasunak eskualdatu zirenean egindako likidazioaren aldean gaidikinik badago, berriz, gaidikin hori itzuli egingo zaio zergadunari.

2. Itzuli diren ondasunak ez dira kausatzailearen jarauntsian metatuko (metaketa foru-arau honetako aurreko artikuluan aipatzen da), baldin eta ondasunoi artikulua honen aurreko zenbakian ezarritakoa aplikatu bazaie.

58. artikulua. Jarauntsiaren banaketa eta adjudikazio-gaindikinak.

1. Heriotzaren ondoriozko oinordetzetan, interesdunek egindako banaketak eta adjudikazioak edozein direla ere eta zergaren ondorioetarako, ulertuko da oinordetza horiek proportzionaltasunari hertsiki lotuz eta oinordetzari buruzko arauen arabera egin direla, eta, ondorioz, balioak egiaztatzean gertatzen diren gehikuntzak eskuratzailerik edo jaraunslen artean hainbanatuko dira.
2. Balioa egiaztatzearen ondorioz balioa gehitzen zaien ondasunen kasuan edo zergapetu gabe utzi beharreko ondasunen kasuan, testamentugileak ondasunok pertsona zehatz bati espezifikoki esleitzen badizkio edo jaraunsi bezala barik beste kontzeptu batean adjudikatzen badira, ondasunok eskuratzen dituenari bakarrik eragingo diote gehikuntza edo gutxipenek.
3. Adjudikazio-gaindikinak likidatuko dira, Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergan ezarrita dauden arauen arabera, baldin eta jaraunsleri eta legataduneri egindako adjudikazioetan ezberdintasunik badago, aitortutako balioaren arabera, jaraunsi-tituluarri dagokionez. Halaber, adjudikazio-gaindikinak likidatuko dira jaraunsleri edo legatu-hartzaileetako bati adjudikatutakoaren balio egiaztatua handiagoa bada haren tituluarri jarraiki dagokion balioaren %50 baino, salbu eta balio horiek Ondarearen gaineko Zergaren erregelak aplikatuz ateratzen direnen berdinak edo handiagoak direnean.

Aurreko kasu horietarako, hau hartuko da jaraunsleri edo legatu-hartzaile bakoitzari dagokion balioz: aurreko 1. zenbakian aipaturiko egiaztaketatik lortutako balio-gehikuntzak jaraunsleri eta legatu-hartzaileen artean hainbanatuz ateratzen dena.

Alargunari, izatezko bikoteko kideari, jaraunsleri edo zati alikuotaren gaineko legatu-hartzailearen bati edo gehiagori ohiko etxebizitza, ondasun tronkalak edo baserria eta hari lotutako ondasunak eta lur erantsiak adjudikatzeak ez du adjudikazio-gaindikinik sorraraziko, baldin eta ondasun horiek duten balioa, jaraunsi osoaren aldean, handiagoa bada adjudikaziodunaren jaraunsi-kuota baino.

59. artikulua. Alargunaren senipartea ondasunak jabari osoan emanaz ordaintzea.

Kode Zibileko 839. eta 840. artikuluetan edo Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legearen 53. artikuluan ezarritakoari jarraiki bizirik dirauen ezkontideari edo izatezko bikoteko kideari bere senipartedun hartzekoa gozamina ez den eran edo kontzeptuan ordaintzen bazaio, likidazioa egingo da adjudikatutako ondasunen balio egiaztatuen eta gozamenari esleitutakoaren baterako kopuruaren gainean, foru-arau honetako 22. artikuluko erregelaren arabera. Horren ondorioz, jaraunsleri ez zaie likidaziorik egingo jabetza soilarengatik, ezta gozamina iraungitzeagatik ere —halakorik gertatzen den egunean—. Hala ere, gozamina ez den eran adjudikatutakoaren balioa handiagoa edo txikiagoa bada ezkontide edo izatezko bikoteko kide alargunari dagokiona baino, gaindikina edo diferentzia adjudikazio-gaindikin gisa likidatuko da: lehenengo kasuan, jaraunsleri onuradunaren edo onuradunen kontura; bigarrenean, ezkontide edo izatezko bikoteko kide alargunaren kontura.

60. artikulua. Jaraunsleri arbuiatzea eta hari uko egitea.

1. Jaraunsleriaren edo legatuaren arbuiatze edo uko egitea huts, soil eta doakoa eginez gero, haren onuradunek arbuiatze edo uko egitearen xede izan den zatiagatik tributatu dute, jaraunsleri arbuiatu edo hari uko egiten dionari aplikatu beharko litzaiokeen tasa edo tarifaren arabera, kausatzailearen eta onuradunaren arteko ahaidetasunagatik tarifa handiagoa aplikatu behar denean izan ezik.

Jarauntsiaren edo legatuaren arbuiaze edo uko egite huts, soil eta doakoa egitearen onuradunak zuzenean jasoz gero kausatzailearen beste ondasun batzuk, aurreko lerroaldean ezarritakoa soilik aplikatuko da baldin eta bi ondasun-taldeak bereiz eskuratzean egindako likidazioen batura handiagoa bada ondasun guztien balioaren gainean egindakoa baino, eta onuradunak kausatzailearekin duen ahaidetasun-graduaren taldeari dagokion tasa edo tarifa aplikatuko zaio likidazio-oinarriari.

Idatz-zati honetan xedatutakoa ez da aplikatuko foru-arau honen 5. artikuluko c) puntuak aipatzen duen uko-egiteen itunetan.

2. Ukoa pertsona jakin baten alde egiten den gainerako kasuetan, uko egiten duenari eskatuko zaio zerga, uko egindako zatiaren lagapenagatik edo dohaintzagatik egin beharreko likidazioaren kalterik gabe.

Hala ere, Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legearen 100. artikuluko 2. idatz-zatiko bigarren tartekian ezarritakoarekin bat etorritik, hirugarren baten jarauntsiari uko egiteko itunak badaude, ez zaio zerga eskatuko foru-arau honen 6. artikuluko f) letraren arabera tributatu zuen uko-egileari, hala bazegokion.

3. Pertsona jakin baten alde egindako arbuiaze edo uko egitea dohaintzat joko da zerga-ondorioetarako, baldin eta Zerga Administrazioak jarauntsiari edo legatuari dagokion zerga-zorra zergaren likidazioaren bidez zehazteko ahala preskribatu ostean egin bada.
4. Bizirik dirauen ezkontideak uko egiten badie ondasunen foru-komunikazioaren araubidetik ateratzen den irabazpidezko sozietateak edo ezkontza-sozietateak dituen efektu eta ondoreei eta nahi bada uko egitearen ondorioz uko egin dien ondasunak -zerga likidatzeko-hildakoaren jarauntsiko ondasunetan sar daitezzen, beharrezkoa da ukoa hutsa, soil eta doakoa izatea eta, gainera, eskritura publikoan egin behar da, kausatzailea hil aurretik. Baldintza horiek betetzen ez badira, likidazioa egingo da uko egin duenak ukoaren onuradunei dohaintza egiteagatik.

Zenbaki honetan ezarritakoa berdin aplikatuko zaie izatezko bikoteei ere.

61. artikulua. Dohaintza bereziak.

1. Dohaintza kargadunek eta ordain gisa emandako dohaintzek dohaintza gisa tributatuko dute, haien zenbateko osoa kontuan harturik. Elkarrekiko prestazioak badaude edo dohaintza-hartzaileari kargaren bat ezartzen bazaio, berriz, dohaintza gisa tributatuko dute baina diferentziagatik bakarrik, kasuan kasuko prestazioengatik edo kargak ezartzeagatik legokiokeen tributazioaren kalterik gabe.
2. Bizarteko edo aldi baterako pentsioen truke egiten diren ondasun-lagapenek dohaintza bezala tributatuko dute ondasunen balioa pentsioarena baino handiagoa den zatiarengatik. Balio horiek biak kalkulatzeko, Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren arauak aplikatu behar dira.

62. artikulua. Dohaintzak eta parekagarriak diren gainerako dohaineko eskualdaketak metatzea.

Dohaintza-emaitza berberak dohaintza-hartzaile berberari hiru urteko epearen barruan -dohaintza eta eskualdaketa bakoitzaren egunetik zenbaturik- egindako dohaintzak eta parekagarriak diren gainerako dohaineko «inter vivos» eskualdaketak eskualdaketa bakartzat hartuko dira zerga likidatzeko, baldin eta ez badira salbuetsizat jo; horrenbestez, zerga-oinarri guztiak batuz lortuko da zerga-kuota. Gainera, metaketa horren ondorioz egiten den likidaziotik kendu egin ahal izango dira metatutako dohaintza eta parekagarriak diren gainerako dohaineko «inter vivos» eskualdaketengatik lehenago ordaindutako kuotak, baina ez da inoiz kuotarik itzuliko.

Aurreko lerroaldearen ondorioetarako, metaketa egiteko batu egin behar da egungo dohaintza edo eskualdaketa egin aurreko hiru urteetan dohaintzan emandako ondasun edo eskubideen balioa.

Aurreko dohaintzak edo eskualdaketak ezkontide biek egin badituzte, ezkontza-sozietatearen ondasun komunak erabiliz, baina egungo dohaintza edo eskualdaketa, aldiz, ezkontideetako batek bere ondasun pribatiboak erabiliz egiten bada, bigarren dohaintza egin duen ezkontideari aurreko dohaintzaren edo eskualdaketa baliokidetasun egotzi ahal zaion parte proportzionalari bakarrik eragingo dio metaketak.

Metatutako dohaintzak edo dohaineko eskualdaketak egin ziren egunean egiaztatu zitzaizkien baliokidetasun arabera konputatuko dira, nahiz eta metaketaren unean balio hori aldatuta egon.

Zenbaki honetan ezarritakoa berdin aplikatuko zaie izatezko bikoteei ere.

63. artikulua. Dohaintzak eta parekagarriak diren gainerako dohaineko eskualdaketak eta mortis causa eskuraketak metatzea.

Aurreko artikuluan aipatutako dohaintzak eta parekagarriak diren gainerako dohaineko eskualdaketak eta dohaintza-emaileak dohaintza-hartzailearen alde egindako edozein titulu dela bide egindako oinordetza-eskualdaketak, salbu eta foru-arau honetako 12. artikuluan salbuetsizat jotzen diren ondasunen «mortis causa» eskuraketak badira, eskuraketa bakartzat hartuko dira zerga-kuota zehazteko orduan, betiere baldin eta horien arteko epea ez bada lau urte baino luzeagoa. Zerga-kuota zerga-oinarri guztiak batuz lortuko da. Metatutako eskuraketengatik aurrez ordaindutako kuotak ordaindutakoaren zenbatekotik kengarriak izango dira, baina ez da inoiz kuotarik itzuliko.

Aurreko paragrafoaren ondorioetarako, metaketa egiteko batu egin behar da azken eskualdaketa aurreko lau urteetan eskuratutako ondasun edo eskubideen balioa.

Aurreko artikuluan aipatutako dohaintzak edo eskualdaketak ezkontide biek ezkontza-sozietatearen ondasun komunak erabiliz egin badituzte, metaketak bakarrik eragingo dio kausatzaileari egotzi ahal zaion baliokidetasunaren parte proportzionalari, eta kengarria izango da dohaintzari edo parekagarria den gainerako dohaineko eskualdaketa horri dagokion kuotaren zatia.

Metatutako eskuraketak egin ziren egunean egiaztatu zitzaizkien baliokidetasun arabera konputatuko dira, nahiz eta metaketaren unean balio hori aldatuta egon.

Artikulu honetan ezarritakoa berdin aplikatuko zaie izatezko bikoteei ere.

64. artikulua. Bizitza-aseguruen zioz jasotako kopuruaren metaketa.

1. Foru-arau honetako 19. artikuluko c) letrako 1. zenbakian aipatzen den zerga-oinarria zehazteko, metatu egingo dira hildakoak eratutako bizitza-aseguru guztien zioz onuradunak jasotako kopuru guztiak.
2. Jasotako kopuru horiek likidatu badira eta, gero, artikulu honetako aurreko zenbakian aipatzen den metaketa egin behar bada, beste likidazio bat egingo da metaketari dagokion zerga-oinarria kontuan hartuz, eta ateratzen den kuotatik kendu ahal izango dira metaketa egin aurretik ordaindutako zerga-kuotak.

IX. TITULUA. ZERGAREN KUDEAKETA

I. KAPITULUA. ARAU OROKORRAK

65. artikulua. Arau orokorrak.

Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren kudeaketa Ogasun eta Finantza Sailean horretarako eskumena duen organoak (organo hori izango da Bulego Likidatzaile Nagusia) eta hipoteka-barrutiko bulego likidatzaileek egingo dute.

66. artikulua. Nola aurkeztu aitorten-autolikidazioak.

1. Zergadunek foru-arau honen xede diren zerga-egitateak biltzen dituen zerga-aitorpen bat aurkeztu beharko dute, Zerga Administrazioako organo eskudunek hura aztertu, kalifikatu eta egiaztatu dezaten eta, hala badagokio, egin beharreko zerga-likidazioak egin ditzaten, foru-arau honetan eta berau garatuko duen araudian ezarritako baldintza eta epeetan.
2. Zergadunek autolikidazioa ere aurkez dezakete, foru-arau honetako 67. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako baldintzetan, eta, kasu horretan, zerga-zorren zenbatekoa zehazteko egin beharreko eragiketak egin beharko dituzte.

Aurreko lerroaldean ezarritakoa gorabehera, zergadunek beti aurkeztu beharko dute zerga honi dagokion autolikidazioa, baldin eta foru-arau honetako 4. artikuluko b) eta c) letretan aipatzen diren zerga honen peko dohaineko ondare-gehikuntzak lortzen badituzte.

3. «Alkar-poderoso»ari edo testamentu-ahalordeari lotutako jarauntsietan, jarauntsiaren komisarioak zerga-aitorpena aurkeztu behar du, non kausatzailea hil dela jaso behar duen. Bertan, foru-arau honetako 74. artikuluan ezarritakoa bete beharko da.

Zenbaki honetan aipatzen diren jarauntsietan, zergadunek ezingo dute autolikidaziorik aurkeztu, harik eta testamentu-ahalordea modu ezeztazinean erabiltzen den arte -hala partzialki nola osorik-, edo hura iraungitzeko beste arazoietako bat gertatzen ez den arte.

4. Aitorpena edo autolikidazioa telematikoki aurkeztu ahal izango da, erregelamenduz zehazten diren kasuetan eta horretarako prozedura eta baldintzak beteta.

67. artikulua. Autolikidazio-araubidea: betekizunak.

1. Foru-arau honetako 4. artikuluko a) letran aipaturik dauden pertsona fisikoek dohainik lortutako ondare-gehikuntzen kasuan zergadunek autolikidazio-araubidea aukeratu nahi badute, eskualdatutako ondasun eta eskubide guztien balioa sartu beharko dute haiek aurkezten dituzten autolikidazioetan, oinordetzan interesatuta dauden eskuratzailerik guztiek agiri edo aitorten berean sartuta egon beharko dute eta guztiek elkarrekin ados egon beharko dute autolikidazioa egiteko.

Aurreko lerroaldean ezarritako betekizunak betetzen ez dituen autolikidazio batengatik ordaindutako zenbatekoa konturako sarrera hutsa izango da, eta bulego likidatzaileak ezingo ditu egin autolikidazioa tramitatzeko erregelamenduz ezarritako baldintzak.

2. Pertsona fisikoek dohainik lortuz gero foru-arau honetako 4. artikuluko b) eta c) letretan aipatutako ondare-gehikuntzak, zergadunek nahitaez aurkeztu beharko dute autolikidazioa, eta aseguratuaren heriotza kasurako bizitzaren gaineko aseguru-kontratuen ondorioz hartukizunik jasoz gero, gainera, agiri edo aitorten berean sartuta egon behar dute aseguruan interesatuta dauden eskuratzailerik guztiek.

Aurreko lerroaldean ezarritako betekizunak betetzen ez dituen autolikidazio batengatik ordaindutako zenbatekoa konturako sarrera hutsa izango da, eta bulego likidatzaileak ezingo ditu egin autolikidazioa tramitatzeko erregelamenduz ezarrita dauden jarduketak.

68. artikulua. Aurkezlearen izaera eta betebeharraren errealaren ziozko zergadunen ordezkariak.

1. Zerga-aitorpena edo autolikidazioa —eta bestelako agiriak— aurkezten dituenak, halakoak aurkezte hutsagatik, zerga ordaintzera behartuta dauden mandataria izango da, eta aurkeztutako aitorten edo autolikidazioari lotuta mandataria horri egiten zaizkion jakinarazpenek interesdunei eurei egindakoen balio bera izango dute eta ondorio berberak sortuko dituzte.
2. Betebeharraren ziozko zergadunek, Foru Arau honen 2. artikuluan 2. apartatuan aipatzen direnak, egoitza Europar Batasuneko beste estatu batean ez badute, Espainiako lurraldean egindako ondasun eta eskubideen eskuraketen aitortzea egiteko epealdia amaitu baino lehen, egoitza Bizkaiko Lurralde Historikoan daukan pertsona fisiko edo juridiko bat izendatu beharko dute beren ordezkaria izan dadin Zerga Administrazioaren aurrean zerga honengatik dituzten betebeharrari dagokienez.

Europako Esparru Ekonomikokoak izanik Europar Batasunekoak ez diren estatuen kasuan, aurrekoa ez da aplikatuko zerga informazioaren trukeari eta diru bilketari buruzko elkarrekiko laguntzaren gaineko araudia dagoenean, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzkoa martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorrean ezartzen denarekin bat etorriz.

Aurreko betebeharrak bera edukiko dute betebeharraren pertsonalaren ziozko zergadunek, hain zuzen ere Espainiako lurraldetik irteten badira zerga-egitatea ez Europar Batasuneko ez Europako Esparru Ekonomikokoak izan ez eta zerga informazioaren trukeari eta diru bilketari buruzko elkarrekiko laguntzaren gaineko araudia daukan estatu baterako dokumentua edo aitortzea aurkeztu baino lehen, honako salbuespen honekin: dokumentuak aurkezteko arazko epealdia amaitu aurretik itzuliko badira

Izendapena Zerga Administrazioari jakinarazi behar zaio, eta horrekin batera ordezkariaren berriazko onarpena aurkeztu behar zaio.

69. artikulua. Aurkezteko epeak.

1. Heriotzaren edo edozein oinordetza-tituluren ondoriozko eskuraketen kasuan, heriotza-kasuetarako bizitza-aseguruen kontratuen onuradunenak barne, aurkezteko epea urtebetekoa izango da, kausatzailea hiltzen den egunetik zenbatzen hasita, edo eskualdatzailearena, hala badagokio, foru arau honen 17. artikuluan 1. paragrafoaren azken paragrafoan aurreikusitako kasuetan, edo heriotza-aitortzea irmo bihurtzen den horretan, edo, hala badagokio, zerga sortzen den egunetik aurrera, orainaren eraginkortasuna duten oinordetza-itunetan.

Epe bera aplikatuko zaie gozamen-duna hiltzean gauzatuko diren gozamen-eskuraketei, jabaria «inter vivos» egintzaren bitartez zatitu arren.

Gainerako kasuetan, aurkezteko epea hogeita hamar egun baliodun izango da, egintza edo kontratua gertatu edo egiten den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita.

2. Ondasunen edo eskubideen eskuraketetan, baldin eta haien eraginkortasuna etenda badago foru-arau honetako 17. artikuluko 4. zenbakian ezarritakoarekin bat, eskuraketak burututzat jotzen diren egunetan hasiko dira zenbatzen artikuluko honetako aurreko zenbakian aipatutako epeak.
3. «Alkar-poderoso»a edo testamentu-ahalordea erabiltzearen zain dauden ondasun-eskuraketetan, ahalordea modu ezeztazinean erabiltzen den unetik edo hura iraungitzeko beste arrazoi bat gertatzen den unetik hasiko da zenbatzen artikuluko honetako 1. zenbakian ezarritako epea.

70. artikulua. Konturako likidazio eta autolikidazio partzialak.

1. «Mortis causa» eskuraketetan, zergaren likidazio partziala egin dadila eska dezakete interesdunek edo zergaren autolikidazio partziala ere egin dezakete, baina honetarako bakarrik: kausatzailearen kredituak eta kausatzaileak sortu bai baina jaso ez dituen hartzekoak kobratzeko, edo gordailuan dauden dirua, efektuak, ondasunak edo baloreak berreskuratzeko; orobat egin dezakete antzeko beste kasu batzuetan ere, beste egoera batean dauden ondasunei dagokienez, baldin eta likidazio edo autolikidazio partziala egitea justifikatzen duten arrazoi nahikoak badaude.

Autolikidazioen kasuan, dena dela, zergadun guztiek aurretik adierazi behar dute ados daudela.

2. Erregelamenduz arautuko dira likidazioak eta autolikidazioak egiteko modua eta epeak, bai eta interesdunek haiei dagozkien zenbatekoak kobratu edo gordailupeko diru zein ondasunak berreskuratzeko bete behar dituzten betekizunak ere.
3. Autolikidazio partziala aurkezten duten zergadunek, ondoren, haiek eskuratu dituzten ondasun eta eskubide guztiei dagokien autolikidazioa aurkeztu beharko dute.
4. Likidazio edo autolikidazio partziala egiteko, zergaren tasa edo tarifa aplikatu behar zaie kasu bakoitzean dagozkion ondasunen balioari.
5. Likidazio edo autolikidazio partzialak jarauntsi bidezko oinordetzari dagokion likidazio osoaren konturako sarreratzat hartuko dira.

II. KAPITULUA. ZERGAREN ORDAINKETA.

71. artikulua. Zergaren ordainketa.

1. Bizkaiko Foru Aldundiak Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zerga dela-eta egindako likidazioak Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergari buruzko Foru Arauko 60. artikuluan ezarritako epeetan ordaindu behar dira.

Nolanahi ere, autolikidazioa aurkezten duten zergadunek foru-arau honetako 69. artikuluan ezarritako epeetan ordaindu behar dute autolikidazioari dagokion zenbatekoa.

2. Zerga-zorra ordaintzeko, honako ondasun hauek ematea onar dezake Foru Aldundiak:
 - a) Euskal Kultur Ondareko ondasunak, baldin eta Euskal Kultur Ondareari buruzko 1990ko uztailaren 3ko 7/1990 Legean aipatzen diren Kultur Ondare Sailkatuen Inbentarioan inskribatuta edota Inbentario Orokorrean sartuta badaude.
 - b) Espainiako Ondare Historikoa osatzen duten ondasunak, baldin eta Ondasun Higigarrien Inbentario Orokorrean edota Interes Kulturalako Ondasunen Erregistro Orokorrean inskribatuta badaude, Espainiako Ondare Historikoari buruzko 1985eko ekainaren 25eko 16/1985 Legeko 73. artikuluan ezarritakoaren arabera.
3. Likidazioak egin dituen bulego likidatzaileak edo autolikidazioak aurkeztu zaizkionak baimena eman diezaielike finantza- edo aseguru-erakundeei -interesdunek hala eskatuta- erakundeotan kausatzailearen izenean gordailatuta dauden baloreak besterendu eta, ondoren, baloreon zenbatekoaren edo kausatzailearen aldeko mota guztietako kontuetako saldoaren kontura txekeak egin ditzaten Bizkaiko Foru Ogasunaren izenean, likidazioen zenbateko zehatzagatik, erregelamenduz ezarritako epe eta prozedurak betez.
4. Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauan eta hura garatu duten arau-xedapenetan ordainketa zatikatuari eta geroratzeari buruz jasotzen diren arauen kalterik gabe, erregelamenduz baldintza bereziak zehaztu ahal izango dira kasu hauetarako:

- a) Ondasun edo eskubideen «mortis causa» eskuraketak, jabetza soilean.
- b) «Mortis causa» eskuraketak, kausadunak ezezagunak diren kasuan.
- c) Bizitzaren gaineko aseguruaren ondoriozko hartukizunak, baldin eta kausatzailea kontratugilea edo aseguru kolektiboko aseguraturua ere bada eta aseguruaren zenbatekoa errenta moduan jasotzen bada.
- d) Enpresa indibidualaren dohaineko eskualdaketak.

III. KAPITULUA. ITZULKETAK

72. artikulua. Betekizunak.

1. Arlo judizialean edo administratiboan eta ebazpen irmo baten bidez adierazten edo aitortzen bada egintza edo kontratu bat deuseztatu, hutsaldu edo suntsiarazi egin dela, zergadunak eskubidea izango du zergaren kuota gisa ordaindutakoa itzul dakion, baldin eta irabaziko ondorioz ekarri ez badio eta itzulketa lau urteko epean eskatu badu. Epe hori ebazpena irmo denetik hasiko da zenbatzen.

Ebazpena aldeek ezarritako baldintza bat betetzearen ondorio denean ez da beharko epaileen edo administrazioaren adierazpenik.

2. Irabaziak daudela ulertuko da baldin eta ez bada frogatzen interesdunek Kode Zibilaren 1.295. artikuluan aipatzen diren elkarrekiko itzulketak burutu behar dituztenik.
3. Egintzak edo kontratuak irabaziak sortu baditu, egindako likidazioa zuzendu egingo da, eta, horretarako, eskualdatutako ondasun edo eskubideen aldi baterako gozamenaren balioa hartuko da oinarri gisa.
4. Nahiz eta egintzak edo kontratuak irabazirik sortu ez, hutsaltzea edo suntsiarazpena adierazten bada zerga ordaindu behar duen kontratugileak ez dituelako bete berari dagozkion betebeharrak, orduan ez da ezer itzuliko.
5. Alderdi kontratugileek hala adostuta kontratua ondorioz gabe geratzen bada, ordaindutako zerga ez da itzuliko, eta zergapeko beste egintza bat balitz bezala hartuko da. Adiskidetzegintzan bat etortzea nahiz demandan amore emate hutsa onartuko dira elkarren arteko adostasun gisa.
6. Aurreko zenbakietan ezarritako arauak foru-arau honetako 4. artikuluan definitutako zerga-egitatea integratzeko moduko egitatezko baldintzei buruzkotzat hartuko dira, oro har egintza edo negozio juridikoen arrazoi den eskuzabaltasun asmoak sor ditzakeen berezitasun juridikoak kontuan hartuz.

X. TITULUA. BETEBEHAR FORMALAK

73. artikulua. Agintari, funtzionario eta partikularren betekizunak.

1. Organo judizialek hilero bidaliko diote Bizkaiko Foru Aldundiari betearazitako epaitzen edo epai irmoen zerrenda, baldin eta haietatik ondorioztatzen bada Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren peko ondare-gehikuntzak daudela.
2. Erregistro Zibileko arduradunek azken hilabetean hildakoen eta haien egoitzen helbideen zerrenda bidaliko diote Bizkaiko Foru Aldundiari, hil bakoitzeko lehenengo hamabostaldian.
3. Notarioek ezinbestean eman behar dizkiote Bizkaiko Foru Aldundiari beren eginkizunak burutzeko esku hartu duten egintzei buruz eskatzen dizkien datuak; gainera, Aldundiak

eskatuta, dohainik eman behar dizkiote -hamabost eguneko epean- notariook baimendutako agirien kopiak nahiz haien protokolokoetan jasotakoena, salbu eta Notariotzari buruzko 1862ko maiatzaren 28ko Lege Organikoko 34. eta 35. artikuluetan aipatuta dauden tresna publikoak badira eta ezkontzen nahiz izatezko bikoteen kontuei buruzkoak badira, baina ezkontza-sozietatearen ekonomia-araubideari eta izatezko bikotearen ekonomia- eta ondare-araubideari buruzkoak diren kasuetan izan ezik.

Halaber, hiruhileko bakoitzaren lehenengo hamabostaldian zerrenda edo aurkibide bat bidali behar dute, non aurreko hiruhilekoan baimendutako agiri guztiak jaso behar diren, baldin eta agiriok zerga honen zerga-egitatea osatzen duten ondare-gehikuntzak ekarri ahal dituzten egintzei edo kontratuei buruzkoak badira.

Era berean, haien berri izateko edo sinadurak legitimatzeko aurkeztu zaizkien agiri pribatuen zerrenda ere bidali beharko dute epe horretan, baldin eta agiriok arestian adierazitako edukia badute.

Gainera, notarioek, hilerok, lehen hamabostaldian, zerrenda bat bidali behar diote Bizkaiko Foru Aldundiari, non zehaztuko den aurreko hilean baimendu dituzten testamentuetatik jarauntsiaren komisarioak zeinetan erabili duen testamentu-ahalordea modu ezeztazinean; zerrendan bertan zehaztu behar da, gainera, nor izan den komisarioa eta nor den erabili den ahalordeari dagokion jarauntsiaren kausatzailea. Zerrenda horretan, notarioak eskuetsitako agiri guztien artetik bakarrik agertu behar dira testamentu-ahalordea erabilia dutenak, are komisarioak ahalordea bere testamentuan erabili duenean ere.

Era berean, notarioek, aurreko lerroaldean ezarritako epealdi berean, Euskal Zuzenbide Zibilar buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legearen 43. artikulua aipatutako testamentu-ahalordearen jardunaren menpeko jarauntsiaren ondasunen komisarioaren xedatze-egintzei buruz beraiek baimendutako dokumentu guztien zerrenda bat igorri beharko diote Foru Aldundiari.

4. Bizkaiko Foru Aldundiak baimena eman ezean, organo judizialek, finantza-bitartekariak, elkarteak, fundazioak, sozietateak, funtzionarioak, partikularrek eta bestelako erakunde publiko eta pribatu guztiek ezin dute erabaki ondasunak titularra ez den beste pertsona bati ematea, aurretik frogatzen ez bada zerga ordaindu dela edo ondasunok salbuetsita daudela.
5. Bizkaiko Foru Aldundiak baimena eman ezean, aseguru-erakundeak ezin dute pertsona baten bizitzaren gainean itundutakoak likidatu eta ordaindu, aurretik frogatzen ez bada zerga ordaindu dela edo itundutako horiek salbuetsita daudela.
6. Aurreko bi zenbakietan ezarritakotik salbu daude foru-arau honetako 15. artikuluan aipatutako kasuak, bertan ezarrita dagoenaren arabera eta bertako baldintzekin.
7. Aurreko 1. eta 5. arteko zenbakietan ezarritako betebeharrak betetzen ez badira, zehapena jarriko da, foru-arau honetako 78. artikuluan ezarrita dagoenarekin bat.

Jurisdikzio-organoen kasuan, Ogasun eta Finantza Saileko Ogasuneko Zuzendaritza Nagusiak Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari jakinaraziko dizkio egitateak, dagozkion ondorioetarako.

74. artikulua. Komisarioaren betebeharrak «alkar-poderoso»aren edo testamentu-ahalordearen menpeko jarauntsietan.

1. «Alkar-poderoso»aren edo testamentu-ahalordearen menpeko jarauntsietan, komisarioak jarauntsiko ondasunen inbentarioa nahiz ahalordearen egiaztagiria aurkeztu behar du, kausatzailea hiltzen den egunetik edo haren heriotza-adierazpena -Kode Zibileko 196. artikuluan ezarritakoaren arabera- irmoa den egunetik aurrera zenbatutako urtebeteko epean. Gainera, Zerga Administrazioak, egoki iritziz gero, beste edozein agiri aurkezteko ere eskatu ahal dio.

Komisarioak Zerga Administrazioari jakinarazi behar dizkio testamentu-ahalorea erabiltzearen zain dagoen jarauntsiko ondare-elementuen inbentarioan gertatzen diren aldaketak, baldin eta ondare-aldaketa horiek ez badute Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren sortzapena eragiten. Jakinarazpena arauz finkatutako moduan, epean eta dokumentazioarekin aurkeztu beharko da.

2. Era berean, testamentu-ahalorea modu ezeztazinean -hala partzialki nola osorik-erabiltzen den egunetik edo hura iraungitzeko beste arrazoietako bat gertatzen den egunetik aurrera zenbatutako hilabeteko epean, aurreko horiek jakinarazi behar dizkio komisarioak Zerga Administrazioari, eta ahalordea erabili dela egiaztatzeko dokumentazioa aurkeztu behar dio edo beste modu batean justifikatu beharko du ahalordea iraungi dela.

XI. TITULUA. ERREGISTROA IXTEA

75. artikulua. Agiriak onartzeari buruzko printzipio orokorra.

1. Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren peko ondare-gehikuntza bat dakarten egintza edo kontratuak jasotzen dituzten agiriak ez dira onartuko bulego edo erregistro publikoetan eta ez dute ondoriorik sortuko bertan, baldin eta agiritan ez bada jasotzen ohar bat, gehikuntza hori likidazioa egiteko organo eskudunei aurkeztu izanaren oharra. Edozelan ere, ez da halako oharrik beharko hipoteka-legerian besterik ezartzen bada edo Bizkaiko Foru Aldundiak horretarako berariazko baimena ematen badu.
2. Aurreko zenbakian aipatutako agiriak bertan adierazitako oharrik gabe onartu dituzten epaitegi eta auzitegiek agirion kopia baimendua bidaliko diete Zerga Administrazioako organo eskudunei, agiriak onartu osteko hamabost eguneko epean.

76. artikulua. Erregistroa ixtea.

Jabetzaren erregistroek, Merkataritzako erregistroek, Patente eta Marken Espainiako Bulegoak, Herri Administrazioen menpeko Kooperatiben erregistroek eta Ondasun Higigarrien erregistroek ez dituzte onartuko erregistratzeko edo idazpena egiteko aurkezten zaizkien agiriak, agiriak zerga honen peko ondare-gehikuntza bat eskuratzea dakarren egintza edo kontratu bat jasotzen badute, baldin eta ez bada frogatzen zerga ordaindu dela edo zergaren menpean ez egoteko edo zerga honetatik salbuesteko alegazioa aurkeztu dela edo likidatzeko organo eskudunei aurkeztu zaiela frogatzen ez bada. Edozelan ere, hipoteka-legerian besterik ezar daiteke.

Nolanahi ere den, erregistratzaileak inskripzioaren albo-ohar baten bitartez agerraraziko du ezen eskualdatutako ondasun edo eskubidea egin beharreko likidazio edo autolikidazio osagarriak ordaintzeari loturik dagoela.

77. artikulua. Erregistro fiskalak.

Aurretik ez bada frogatzen zerga ordaindu dela edo salbuetsita dagoela, ezin da aldatu tributu edo ordainarazpen baten zergaduna, baldin eta aldaketa horrek -zuzenean edo zeharka- Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergak zergapetutako ondasunak, eskubideak edo akzioak eskualdatzea badakar.

XII. TITULUA. ARAU-HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK

78. artikulua. Zehapen-araubidea.

1. Artikulu honetako hurrengo zenbakietan ezarritakoaren kalterik gabe, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren arau-haustek Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauan eta hura garatu duten arau-xedapenetan ezarritakoaren arabera zehatuko dira.

2. Epez kanpo aurkezten badira, batetik, salbuetsitako eskuraketen ondoriozko ondasunen edo eskubideen aitortpenak eta autolikidazioak, edo, bestetik, foru-arau honetako 42-45. artikuluetan ezarritakoaren arabera aplikatu beharreko murrizketak zerga-oinarriaren bestekoak edo handiagoak dituzten eskuraketen ondoriozko ondasunen edo eskubideen aitortpenak edo autolikidazioak, bada, orduan, eskuratutako ondasun-eskubideen balio garbiaren gaineko %0,1eko diruzko isun proportzionala jarriko da; gutxienez 600 eurokoa izango da isuna, eta, gehienez, 9.000 eurokoa, zergadun bakoitzeko.
3. «Alkar-poderoso»aren edo testamentu-ahalorearen bidezko jarauntsien komisarioari foru-arau honetako 74. artikuluan ezarritako betebeharrak horretarako berariaz ezarritako epearen barruan ez betetzea zerga-alorreko arau-haustetzat joko da, eta honako erregela hauen arabera zehatuko da:
 - a) Komisarioak jarauntsiko ondasunen inbentarioa aurkezten ez badu edo inbentarioa aldatzen badu, baina aldaketa horrek ez badakar zergaren sortzapenik, eta, gainera, ahalordearen frogagiria aurkezten ez badu, 600 euroko diruzko isun finkoa jarriko zaio.
 - b) Salbuetsitako eskuraketetan edo foru-arau honetako 42-45. artikuluetan ezarritakoaren arabera aplikatu beharreko murrizketak zerga-oinarriaren bestekoak edo handiagoak dituzten eskuraketetan ez bada jakinarazten testamentu-ahalordea erabili dela edo hura iraungitzeko beste arrazoietako bat gertatu dela, isuna jarriko da, alegia, eskuratutako ondasun-eskubideen balio garbiaren gaineko %0,1eko diruzko isun proportzionala; gutxienez 600 eurokoa izango da isuna, eta, gehienez, 9.000 eurokoa, zergadun bakoitzeko.
4. Artikulu honetako 2. eta 3. zenbakietan ezartzen dena betez jartzen diren zehapenei Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauko 193. artikuluan ezartzen dena aplikatuko zaie.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengoa. Izatezko bikoteak.

Foru-arau honen ondorioetarako, izatezko bikoteak aipatzen direnean ulertuko da Izatezko bikoteak arautzen dituen 2003ko maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoaren arabera eraturako bikoteak direla.

Bigarrena. Etxebizitzen 1985eko maiatzaren 9a baino lehenagoko errentamendu-kontratuak.

Jaraunsle edo legatu-hartzaile batek jasotako ondasunen artean 1985eko maiatzaren 9a baino lehen egindako errentamendu-kontratuaren peko higiezinak badaude eta kontratu horiek ez badute errenta berrikusteko eskubiderik -Hiri Errentamenduei buruzko 1994ko azaroaren 24ko 29/1994 Legeak bigarren xedapen iragankorreko 11. paragrafoko 7. erregelari ezarritakoa aplikatuz- kasu horretan dagoen jaraunsle edo legatu-hartzaileak higiezinaren balioaren gaineko %25eko murrizketa aplikatu ahal izango du.

Hirugarrena. Testamentu-ahalordea noiz baliatuko zain dauden oinordetzen eta unean bertan eragina duten oinordetza-itunen araubide iragankorra.

1. Ezkontide edo izatezko bikotearen, odol bidezko aurreko zein ondorengo zuzeneko ahaide edo adopzio-hartzaile zein adoptatuen jarauntsizko eskuraketen —alkar poderosoen erabilera partzialaren ondoriozkoen edo 2014ko urtarrilaren 1ean edo egun horretatik zenbatzen hasita sei hileko epean iraungi ez diren edo guztiz erabili ez diren testamentu-ahalordeen eskuraketen— kasuan, metatu egingo dira oinordeko berari dagozkion kausatzaile beraren eskuraketa guztiak, eta eskuraketok bakartzat hartuko dira foru-arau honetan araututako murrizketak behin bakarrik aplikatzeko. Eskuraketa horien ondoriozko ondasun eta eskubideen balioa haiek sortu zirenekoa izango da.

2. Ezingo da inoiz ere metaketarik egin ondorengo sortzapenei dagozkien zerga- oinarriak handitzeko, kausatzaile eta oinordeko berei dagokienez.
3. Berdin jardungo da 2014ko urtarrilaren 1a baino lehen sortu eta unean bertan eragina duten oinordetza-itunen kasuan.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Bakarra. Industria- eta negozio-bankuen kutxa-bonuak.

1962ko azaroaren 29ko Dekretu-legean aipatzen diren industria- eta negozio-bankuen kutxa-bonuak jarauntsi, legatu edo dohaintza bidez eskuratzea salbuetsita dago, baldin eta kausatzaileak edo dohaintza-emaileak 1987ko urtarrilaren 19a baino lehen eskuratu baditu. Tituluak amortizatuz gero, amortizazioaren zenbatekoa industria- eta negozio-bankuen beste kutxa-bonu batzuetan berrinbertitu ahal izango da, salbuespena aplikatzeko eskubidea mantentzeko.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Bakarra.

1. Foru-arau hau indarrean jartzean indargabeturik geratuko dira foru-arau honetan xedatutakoaren aurka edo kontraesanean dauden maila bereko edo txikiagoko xedapen guztiak, eta indargabetu egingo da, bereziki, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzko otsailaren 15eko 2/1989 Foru Arauaren Testu Bategina, 1993ko ekainaren 22ko 3/1993 Foru Dekretu Arauemaileak onetsita.
2. Foru-arau honetan ezarritakoarekin bat datozen erregelamenduzko arauak indarrean jarraituko dute, arau honetan aurreikusten diren erregelamenduzko gaikuntzak erabiltzen ez diren bitartean.
3. Aurreko bat zenbakian aipatzen diren xedapenak indargabetzeak ez die kalterik eragingo xedapena indarrean egon den bitartean sortutako betebeharrak direla-eta Zerga Administrazioak dituen eskubideei.

AZKEN XEDAPENAK

Lehena. Indarrean jartzea eta ondorioak.

Foru-arau hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean jarriko da indarrean.

Bigarrena. Arauak emateko gaikuntza.

Gaitasuna ematen zaie Bizkaiko Foru Aldundiari eta Ogasun eta Finantzen foru diputatuari foru arau hau garatzeko eta betearazteko beharrezko diren xedapen guztiak eman ditzaten.

Bilbon, 2015eko martiaren 25ean.

Batzar Nagusietako Lehenengo Idazkariak.

JON ANDONI ATUTXA SAINZEK.

Batzar Nagusietako Lehendakariak.

ANA MADARIAGA UGARTEK.